ttipi-ttapa
214. zenbakia • 1997ko irailak 25 • XVI. urtea




# Larrialdietarako anbulantziarik ez dago Bortzirietan

*Anbulantzia ez ezik DYAk Lesakan duen bulegoa ere desagertzeko punttuan dago.*

Bortzirietan istripu edo larrialdiren bat gertatuz gero, Irundik edo Doneztebetik datorren anbulantziari esperatu behar zaio. Egoera hau aski larria da, 8.500 biztanleei, Lesaka eta Berako fabriketan ari den jendea gehitu eta errepidean izaten den trafiko haundia kontuan hartzen badugu. Eskualdeko alkateak bildu dira dagoeneko Santiago Cervera, Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariarekin, Bortzirietarako anbulantzia eskatzeko. Momentuz, ez dute erantzunik jaso. ☞ 4



**Kultura:**
**Xorroxin kontzertuak**

Hamabi urte pasatu dira Xumuxu eta Xabier, Xorroxin Irratiko laguntzaileak, Erratzuko lehen kontzertuak antolatzen hasi zirenetik eta larunbat honetan Benito Lertxundi ekarriko dute Elizondora. Halere, Xumuxuren ustez, *«arriskutsua da kontzertuak egitea, Baztango jendea ostatuetan gelditzen baita».* ☞ 27

**3** Elkarrizketa: **Mikel Ilarregi**
Azken hilabeteotan Udaletxean izandako gorabeheretaz aritu gara Leitzako alkatearekin.

**6** Iritzia: **Euskara Normalkuntzarako Plana atzeratu dute Unibertsitate Publikoan**
Ikasle, irakasle eta Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiko ordezkariaren iritziak.

**28** Kirola: **Eskubaloia emakumeen kirola da Baztanaldean**

**TTIPI TXARTELA**: Erosi zeurea eta erabili!






*Igantziko bestetan, herrikideen alaitasunarekin bat egiten dugu*

**Besta zoriontsuak!**

CAN NAFARROAKO AURREZKI KUTXA





***Igantziko Udalak besta onak opa dizkizue***
***Igantziar eta bisitari guziei***

DATUAK.........

❖ *Gaur egun Leitzako alkatea da, baina Lezotarra dugu sortzez, eta oso txikitan Pasaira joandakoa. Orain dela 17 bat urte etorri zen Leitzako ikastolara, 20 urte zituela.*

❖ *Ikastola itxi zutenean, Leitzako eskolan 3-4 urtez aritu zen eskolak ematen, Gobernuak kanporatzea erabaki zuen arte. Gaur egun ordezkapenak egiten ditu han eta hemen.*

❖ *Alkatetzan, berriz, bi urte inguru daramatza, eta legealdi hau bukatzeko asmoa erakutsi digu, «beste gorabeherarik gertatzen ez den bitartean». Lehenagotik zinegotzi kargua bete zuen lau urtez.*

TESTUA:
**ASIER GOGORZA**
ARGAZKIA:
**JOSEBA AZPIROZ**

**Mikel ILLARREGI** *Leitzako Alkatea*

# "Bakarren batek ikurriñaren inguruan sortu den gatazka areagotu nahi du"



«Herriak emandako erantzuna oso positiboa izan dela pentsatzen dugu».

**IKURRIÑA URTE OSOAN UDALEKO BALKOIAN MANTENTZEA ERABAKI DUTE LEITZAKO EA ETA HBK, EZTA HALA?**

Bai, bi puntu konkretuko mozioa onartu genuen: lehenbizikoan ikurriña etengabe balkoian ezartzea ikusten zen, eta bigarrenean epailearen aurreko zitaziora bi taldeen izenean agertu eta beharrezko laguntza guzia ematea onartu zuen EAk.

**EAREN JOKABIDEAN NOLABAITEKO GORABEHERAK IKUSI DITUZU?**

Bueno, duela hilabete auzitegiko zitazioa jaso genuenean, korporazio osoaren kontrako erabakia zela eta ez HBren kontrakoa soilik pentsatu genuen guk. Orduan ekimen ezberdinetan parte hartzea proposatu genien EAkoei. Beraien adostasuna adierazi ziguten, baina taldearen barnean kontsultatu behar zutela, eta ondoren HBrekin batera parte ez hartzea erabaki zutela dirudi. Horrela, manifestazioan eta omenaldian ez ziren izan. Orain, berriz, mozio berri hau bi taldeen artean onartu da.

**UILKO ZINEGOTZIAK, ORDEA, EZ DIRA UDALERA ITZULI...**

Hau aspaldiko kontua da, uztailekoa, Miguel Angel Blancoren gorabeherak zirela-eta, talde bakoitzak bere mozioa atera zuen. Silvestre Zubitur-ek UILen izenean bost puntuko proposamena atera zuen eta ikurriña Udaletik kentzea exigitzen zuten, besteen artean, eta beraien eskakizunak bete arte ez zirela itzuliko. HBren ezezko botuekin atzera bota zen mozioa eta ordu ezkeroztik ez dira udaletxean agertu.

> *"Pestetan, kainabera batzuen gainean ikurriñak zituztela pertsona batzuk plazara sartu zirenean, jende guzien txaloak aditu zituzten."*

**NOLAKOA DA JENDEAREN ARTEKO GIROA?**

Pesten aurretik tentsioa nahiko haundia zen, halako urduritasun bat nabaria zen. Hala ere, pentsatzen dugu herriak emandako erantzuna oso positiboa izan dela. Kainabera batzuen gainean ikurriñak zituztela pertsona batzuk plazara sartu zirenean, jende guzien txaloak aditu zituzten. Korporazioaren parte bat zegoen bertan, EAko eta HBko zinegotziak, eta halako elkartasun giro polit bat bizitu zen.

**BESTETAKO GIROA HOZTU ETA EPAITEGIKO ZITAZIOA ARTXIBATU ONDOTIK, EGOERA LASAITU DELA USTE DUZU?**

Bai, epaileak bertan behera utzi du zitazioa, eta horrek guk hasitako bidea baieztatu egiten du. Dena den, esan beharra dago azken hilabetean ikurriña bi aldiz kendu dutela balkoitik, ez dakigu nork, baino kendu dutela. Seguraski ere, bakarren batek ikurriñaren inguruan sortu den gatazka areagotu nahi du eta ahaleginak egiten ari dira.

ERREPORTAIA

**Anbulantzia zerbitzuak zenbait gorabehera izan ditu azken hilabeteotan eskualdean. Osasunbideak ASENA (Nafarroako Anbulantzien Elkartea) erakundearekin zuen kontratua ekainaren 30ean akitu zen eta orain Urbaser-Dragados enpresa da anbulantzia zerbitzu ofiziala eskaintzen duena. Doneztebeko Baztan-Bidasoa anbulantzia enpresa ASENAren barnean zegoen, beraz eskualdean ere eskuz aldatu da zerbitzu hau. Bertzalde, DYAk Lesakan zuen anbulantzia Iruñera eraman dute, boluntario nahikorik ez zegoela eta. Bortzirietan ez dago anbulantziarik orain eta larrialdiren bat izanez gero, Doneztebetik edo Irundik joan behar du. Gainerako zonaldeetan egokiago hornituri daude, batez ere boluntarioek, Gurutze Gorrian, DYAn edo udal anbulantzia zerbitzuan (Leitzako kasuan) egiten duten lanari esker. Halere, Iruñetik bertzerik badiote ere, ezin erran egoerarik onenean gaudenik.**

TESTUA: ***AITOR AROZENA***




# Egun dagoen anbulantzia eskaintzak ez du zonalde guzietako beharra betetzen



Zonalde bakoitzaren arabera, aunitz aldatzen da egoera. Kezkagarriena, seguraski, Bortzirietan izanen da. Larrialdien kasuan, Doneztebetik edo Irundik mugitu behar du anbulantziak, eta horrek denbora galtzea erran nahi du, batzutan hil ala bizikoa den denbora. *«Deitzerakoan anbulantziak libre badaude ere, 20 minutu baino gehiago gostako zaie herri horietatik honat etortzea»* dio Jose Mª Irazokik, Bortzirietako DYA erakundeko arduradunak. Batzutan, hil ala bizikoa den denbora. 1983 eta 1996 urteen artean 1.525 urgentzia zerbitzu –istripu nahiz eritasunagatik– eskaini dituen DYAko anbulantziarik ez dago orain, boluntarioak falta direla eta.

Egoera hau moldatzen saiatzeko, bilera izan zuten irailaren 11n Bortzirietako alkateek Santiago Cervera, Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariarekin. Alkateen eskaria, Lesakako Osasun Zentroan anbulantzia medikalizatua paratzea zen, beharrezkoak dituen langileekin batera, noski. Izan ere, Miguel Mari Irigoien, Etxalarko alkateak eta Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko lehendakariak gogoratzen duenez, *«8.500 biztan-*




*leei, Lesakako eta Berako fabriketan aritzen diren langileak gehitu behar zaizkie, errepideak izaten duen trafiko haundia eta, ondorioz, istripu arriskua...Horrek denak anbulantzia bat eskatzen du, bederen».* Osasun kontseilaria arazoaz jabetu eta konponbideren bat aztertzen saiatuko dela adierazi bazuen ere, *«garestiena ez da anbulantzia, hura ibiliko duen jendea baizik»* gogoratu zuen. Arazo hori nolabait moldatzeko, Osasunbidea eta Aceraliaren arteko komenioren bat sinatzea proposatu zuten Bortzirietako alkateek. Hauek ez dute onartzen gaur egun dagoen zonifikazioa. *«Beran edo Lesakan istripu bat gertatzen bada, distantzia haundiagoa dago anbulantziatik istripura, istriputik Irungo Ospitalera baino»* dio Irigoienek.

**Bortzirietan istripu bat gertatzen bada, distantzia haundiagoa dago anbulantziatik istripura, istriputik Irungo Ospitalera baino.**

*Miguel Mari IRIGOIEN*
*Etxalarko alkatea*

## Gainerako zonaldeetan egoera hobea da

Malerrekan, DYAko anbulantziaz gain, bi enpresa pribatuetakoak ere bertan dituzte. Izan ere, azken urteotan aritu den Baztan-Bidasoa enpresarekin batera, Urbaser-Dragados enpresak ere jarri ditu bere anbulantziak Doneztiben. Azken honek du, ekainaren 30az geroztik, Osasunbideatik bideratzen diren deiak erantzuteko ardura. Baztan-Bidasoa anbulantziek, Nafarroako Gobernuarekin zuten komenioa akitu badute ere, partikularrei zerbitzua eskaintzen segitzeko asmoa dute, Joxe Mª Urroz arduradunaren erranetan. Hauek zortzi anbulantzia dituzte, horietatik bi larrialdietarako behar diren tresna guziekin –SAMU deiturikoak–, Doneztiben eta Leitzan.

## Udal anbulantzia, Leitzan bakarrik

Leitzan, anbulantzia horretaz gain, udal anbulantzia zerbitzua dute, zona osoan dagoen bakarra. Jose Antonio Zabaleta arduradunak errandakoaren arabera orain 15 urte sortu zen zerbitzu hau, *«Diputazioaren eta udalaren arteko akordio baten ondorioz»*. Gaur egun zortzi gidari eta bost laguntzaile daude taldean. Astean bi lagun egoten dira zerbitzuan, eguneko 24 ordutan aurkitzeko moduan. Halere, Zabaletak onartzen duenez, *«hasieran, anbulantzia pribatua jarri baino lehen astean behin edo bitan salida izaten bagenuen ere, orain ez gara ia batere ez ateratzen»*. Areso eta Lekunberri aldera ailegatu izan badira ere, Leitzako udala da anbulantziaren mantenu gastuetaz arduratzen denaGoizueta eta aranoarrak, larrialdien kasuan, Hernani aldera eta Donostiako ospitaletarako bidea hartzen dute erraxago, gehienetan anbulantziari esperatu gabe.

Baztanen Gurutze Gorriaren eta Oronozko suhiltzaileen anbulantziak dituzte, larrialdietarako.

Saran anbulantzia enpresa pribatua dute, *«Eri Lagun»* izenekoa. Halere, urgentzia larria denean, Senpereko suhiltzaileengana jotzen dute. Zugarramurdi eta Urdazubin ere, kasu larrienetan bederen Senpererat deitzen dute. Bertzenaz, Elizondoko Osasun Zentrora edo Iruñeko ospitaletara joaten dira. ■



☞ **Jose Mª IRAZOKI** *Bortzirietako DYA*

# «Anbulantzia zerbitzu egokia jaso ez dugunean denuntziatu egin behar da»

Ia 15 urtez, Lesakako DYAko arduraduna denaren ustez, inguruko anbulantzia eta urgentzia zerbitzuaren egoera *«penagarria da eta, gainera, maldan beheiti doa, momentuz ez dauka soluziorik»*. DYAri dagokionez, Bortzirietan ez dago jadanik larrialdietarako anbulantziarik. *«Orain dela urtebete, boluntariorik ez zegoela eta, astegunetako zerbitzua kendu zen eta orain asteburuetakoa. Dagoeneko Iruñean dago anbulantzia»*. Epe laburrera, Lesakan duten egoitza bera ere ixtea pentsatu dute eta ezinduak Uxanera eramateko erabiltzen duten anbulantzia, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuaren eskuetan uztea. Doneztiben berriz, 15-17 boluntario daude. Irazokiren erranetan, *«asteburuak kubritzeko ongi dago, baina astegunetarako larri dabiltza, jendeak bere lana izaten baitu. Baztanaldean, gauzak ez doazi hobeki, Gurutze Gorrian ere objetoreak hartzen ari baitira eta gero, Oronozko su-hiltzaileen parkeko anbulantzia dago»*.
Larrialdietarako anbulantzia pribatua da, beraz, eguneko 24 ordutan zerbitzua eskaintzen duena, baina ez da nahikoa Irazokiren ustez. *«24 ordu horietatik 5 Iruñera edo Donostira traslado bat egiten joaten ahal zaizu eta tarte horretan ez dago anbulantziarik eskualdean, beldurgarria da!»*. Anbulantzietaz ezbeharren bat suertatzen denean bakarrik oroitzen garela dio Joxe Marik eta egoera hau salatu behar dela uste du. *«Istripua izan eta anbulantzia handik 45 minutu edo ordubetera ailegatzea gertatu izan da, baina gero ez da hori denunziatzen. Gero Iruñean estadistikak begiratzen dituzte eta zera diote, Baztan-Bidasoa inguruan ez dela inor hil anbulantziaren esperoan, beraz, zerbitzua egokia eta nahikoa da. Horrekin bukatu behar da, denuntziak paratuz»*.
DYAko ordezkariaren arabera, *«Nafarroako Gobernua boluntarismoan oinarritu da alderdi honetako larrialdiak moldatzeko, baina horrek ez du aitzinerako biderik. Osasunbideak zerbitzu ofiziala paratu behar du, profesionalen esku»*.



**ttipi-ttapa**
HAMABOSTEKARIA

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 6.500 ALE

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa
Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa: 63 11 88
Faxa: 63 12 91
**Internet:**
http://www.encomix.es/ttipi-ttapa
**e-mail:**
ttipi@encomix.es
**e-mail:**
ttipi@mail.sendanet.es

**Zuzendaria:** Joxemanuel Irigoien. **Publizitatea:** Miren Karmele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor Arozena, Asier Gogorza, Joxemanuel Irigoien. **Administrazioa:** Amaia Goia. **Erredakzio taldea:** Pello Apezetxea, Juainas Paul, Kristina Boan, Bittori Telletxea. **Berriemaileak:** Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Ainhoa Mutuberria, Iban Isasi, Txema Aldabe, Patxi Otxandorena, Ixabel Maia, Josune Etxebeste, Pablo Mendiburu, Joseba Igarabide, Alizia Olaizola, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Mixel Gerendiain, Jacqueline, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Kristina Boan. **Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Mikel Bezunartea, Joxe Javier Etxeberria... **Inprimategia:** Graficas Ona. ***ttipi-ttapa**k ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzukizunik. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Areso, Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi eta Sarako udalak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkartea...

**Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du**




GAURKOTASUNEKO GAIA

# Euskararen Normalkuntzarako Plana atzeratu dute NUPen

## Unibertsitateko pertsonaia batzuek museo batean edukitzeko nahi dute euskara



Gorka URROZ
NUPeko ikaslea. Iruñta

Lehenengo erran behar da errektoreak plana atzera botatzean bere politikarekiko atzerapauso bat eman duela, berak sortu baitzuen Hizkuntza Normalizatzeko Komisio hori. Nahiz eta batzuei planean agertzen zena gutti iduritu, aurrerapauso txiki batzuk bazeuden gutxienez.
Gertatu dena da, plan hori ikusi behar zen momentuan, horrelako jokaldi bat egin duela errektoreak, eta Normalizatze Batzordeko jendea guztiz txundituta utzi duela.
Ez dakigu tartean presio politikoak egon diren edo ez diren egon, eta egia erran horrek ez du sobera inporta, garbi dagoelako unibertsitatean bertan badaudela halako pertsonai batzuk euskara museo batean edukitzeko nahi dutenak, eta ez diote erabilgarritasunik bilatzen.
Uste dut (ez nago ziur) hilaren 27an Junta de Gobierno ez-ohiko bat eginen dela atzera botatze harrigarri honi buruz hitzegiteko. Junta horretan gauzak ez badira aldatzen, arazoa jada ez da izango euskarazko asignaturarik ez izatea, baizik eta Normalkuntza plan xinple bat ere gabe gelditzea.

## Nafarroako gizartearen guttiengo batekiko errespetu falta argia da



Alejandro ARIZKUN
NUPeko irakaslea

Gobernu Juntak Euskara Normalizatzeko Plana atzera botatzea kezkagarria iduritzen zait, nere ikuspuntuaren arabera Nafarroako gizartearen guttiengo baten eskubideekiko errespetu falta argia delako.
Euskara Normalizatzeko Plana oso orokorra zen berez, zehaztasun haundirik gabekoa. Bere barnean, gainera, inkoherentzia dexente ikusten nituen nik. Plan honen egilea izan den Normalizatze Komisioak gauza oso umila egin nahi izan du, inor ez izitzeko modukoa, baina hala ere ez dute onartzen.
Honek unibertsitatearen borondate falta nabarmentzen du, euskarari dagozkion kontuetan behintzat. Nik ez dakit Gobernu Juntaren erabakia dagoen guztiaren atzean, edo egunkarietan irakurri ahal izan den bezala presio politikoen ondorio den, baina neri ez zait hori arazo nagusiena denik iduritzen.
Epe labur batean oso ezkorra naiz, afera honi ez baitiot hobera joango denaren itxurarik hartzen. Denbora aunitz daramagu kontu hauekin bueltaka eta azkenean beti blokeatu egin dituzte euskararen arloko gaiak.

## Espero dut hurrengo NUPeko Gobernu Batzordean sartu eta onartuko dutela



F. PEREZ de VIÑASPRE
Hizkuntza Politikako Z.N.

Nafarroan euskararen normalizaziorantz emateko diren pauso guztiak oso garrantzitsuak dira. Eta helburu honetan Unibertsitate publikorako Normalizazio Plana oso aurrerapen haundia izan daitekelakoan nago. Espero dut hurrengo NUPeko Gobernu Batzordean sartu eta onartuko dutela.
Erakunde eta Administrazio Publiko guztiek, dagokien gizarte esparruaren eskariei erantzun egokiak ematen saiatu behar dute, beti ere Euskarari buruzko legediak esaten duena jarraituz. Eta hori ez da egiten egun batetik bestera. Denbora eta baliabideak behar dira eta hauek aurreikusi eta planifikatu behar dira.
Bestalde, Heziketa Komunitateak gizartearen isladapena bihurtzen direla uste dut, eta noski, ez dira libratzen gizartean agertzen diren kritika, presio etabarretaz...
Oso aurrerapen haundia izan zen adosturiko Normalizazio Planaren proposamena lortzea. Heziketa ez-unibertsitarian ematen ari den bilakaera Unibertsitatera ere ailegatuko da eta orturako hau prest egon behar.


**ARTEKARI TALDEA**
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

**LESAKA:**
• Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
• Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
**Non:** MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 70 50

**BURLATA:**
ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328•133346. Faxa: 133713
**Non:** La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

## BOTA BERTSOA



### *Oporren ondotik, berriro egunerokora*

**Estitxu AROZENA (Lesaka)**

Doinua: Eguzkitzeren 7 puntukoa

*Denborarekin prestatzen hasi*
*neguaren etorrera,*
*oporraldia bukatu baita*
*Abuztuakin batera;*
*Seguru aski aldatuko da*
*gure gaueko jarrera*
*Hamar terdiak aldera*
*atera ordez kalera*
*Lokartu baino lehen begiak*
*beti despertadorera*
*Berriz makurtu beharko dugu*
*erlojuaren legera.*

*Urte guztian izan nahiean*
*oporraldiaren jabe,*
*Nahiz ttikitatik ikasi dugun*
*lana dugula zutabe*
*ongi dakigu mundu hontan behin*
*soilik egoteko gaude*
*aukera aunitzen sare*
*bihur gaitezke halare;*
*nere asmoa ezin osatu*
*aholku hau eman gabe*
*Aprobetxatzen saia zaitezte*
*lan eguna izandare.*

## IRAKURLEAK MINTZO

**Trikitixa txapelketaren inguruan:**

Ospatu berria den Txapelketa honen ondoren, beti egiten dugun balorazioa, oraingo honetan kanporatzea, denentzako egitea, erabaki dugu. Horrela hurrengoari begira zer egin eta elkar hobekiago ulertzeko izango delakoan.

Lehen lehenik, gure helburu bakarra gauzak ongi egiten saiatzea besterik ez da. Norbait lau txapelketa hauetan gaizki sentitu bada, ez da gure intentzio txarrari esker izango. Hori garbi izan.

Irrati saioetan eta prentsan ere aipatuak ditugu balorazio batzuk eta orokorrean hartzen baditugu hauetxek dira guk egindakoak, zuena egin nahi baduzue deitu gure telefonora eta pozik hartuko dugu:

a)-Aurtengo edizioan bikote gutxiago izan dira. Eraberean bikote gazteak azaldu dira, hauetako batzuk sorpresa interesgarriak izanik.

b)-Epaimahaikideek hartutako erabakiaz: Kontutan hartu trikitixa txapelketa bat ez dela pilota partidu bat, 22 tanto eta kitto! Irabazia. Ez, neurtu behar den zerbait da. Piezaren zailtasuna, ejekuzioa, erritmoa, ahotsa, panderoa jotzeko modua, kantua eta plazarako jarrera. Guzti hau kontutan harturik saiatzen gara zein epaimahaikide aukeratu eta nola arautu puntuaketak.

Aurtengo edizioan ere entzun ditugu nola ez diren denak gustora gelditu eta esan dituztenak. Egia da, zaila da denekin asmatzea baina kontutan izan: pertsonak dira, musiko onak dira eta ez norbaitek esan duen bezela ezer ez dakitenak. Lan hori ongi ezagutzen dutenak aurtengo hirurak ere, baina hala ere denekin ez dugu asmatu noski.

Honek, beti izaten dugun kezka ekartzen digu berriro ere gogora. Nola bideratu denak onartuko dugun zerbait?

Txapelketara doanak aldatu beharra du: Antolaketa honek zer suposatzen duen ulertzen saiatuz, eta reglen barruan sartuz. Aurtengo edizioan ere saiatuak gara bereziki lanak ongi egiten eta agian gehien kexatu denari gure laguntza eta informazio faltan ez dela geratu adierazi nahi genioke. Hotz hotzean, barrutik ikusi beharko lituzkete beste era batera ulertzeko antolaketa lanak.

Honen aurrean antolatzaileeri ongi ibiltzea eskatzen zaigu eta era berean trikitilariei gehixeago ulertzea eskatzera ausartzen gara. Gu ez gara txapelketa hauekin inori kalte egiteko asmoarekin lanean ari. Trikitia maite dugu eta hauxe da lan honen arrazoi bakarra. Kontutan hartu hori!

d)-Azkenik, trikitilariei adierazi nahi geniokena. Txapelketa batek gehiago merezi du, trikitilariaren onerako eta trikitixaren onerako, biek indartu daitezten. (Honekin txapelketa ere indartuz).

1-Plazarako jarrera, arauak bete: Gestoak, piezaren arteko hutsuneak, jazkera...

2-Laguntzeko jarreran: denen artean egina. Kritika egin eta izan kritikatuak.

3-Antolatze prozesuan sartu. Ekipoan lana egin. Barrutik, seguru, desberdina da.

4-Partaideen arteko errespetoa landu beharrean gaude. Ezinezkoa da zenbait partaideen arteko «pikeak».

5-Txapelketa bati gehiago eskeini behar zaio:

-Pieza egokiak aukeratu: Poliki baina maila igotzen saiatu behar da.

-Bertsoak landu: Haien esanahia herrikoa izatea, etab.

-Panderoari garrantzi gehiago eman behar zaio; gehiago landu, PERKUSIOA.

-Ezinezkoa da 4 piezatik ia hiru aurreko txapelketakoak izatea. Beraz, hau ere hortxe geratzen da hurrengorako, saiatu beharra dago denen onerako, Txapelketa batek gehiago merezi du eta.

6)-Noiz egin? Eta trikitilarien adina? Nola antolatu behar dira hurrengo edizioak? Zer egin gaztetxoekin, hasi berria duten ilusioa galdu ez dezaten? Galdera asko dira zaku zulatuan ez daitezen erori zer egin behar dugun asmatzeko. Guk gurea eskeintzen dugu, eta zuk?

ANTOLATZAILEAK

ZURE ARGAZKIAK
ORDU BATEAN EGITEN DITUGU
FOTO MENA
KALE NAGUSIA 4
TEL ETA FAX: 45 08 25
DONEZTEBE
SANTIAGO KALEA 40
TEL: 58 01 55
ELIZONDO
IA 100 URTE KALITATEA ETA PROFESIONALTASUNA ESKEINIZ

PIKABEA pinturak
Molinero drogerian galdetu
Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu
• Fatxadak
• Barne dekorazioa
• Pintura orokorrean
Izpoz 8 • ✆ 630240 - 631495 • BERA

TXIRULA
Albistur, 39-K
☎ 627542
LESAKA
• bitxikeriak •
• opariak •
• enmarkazioak •




Eskualdeko Euskara Zerbitzuek urria eta azarorako Topaketa hauek antolatu ditugu. Topaketen helburua hirukoitza da: batetik, Baztan-Bidasoako euskaltzaleen bilgunea sortu nahi dugu; bertzetik, euskaltzaleei euskararen erabilera areagotzeko eta normalizatzeko egiten ari diren zenbait ekimen karrikaratu eta gai hauen inguruan eztabaida eragin nahi dugu eta; azkenik, euskaltzaleei informazio teknikoa eta prestakuntza teknikoa eskainiko diegu.

Topaketen egitaraua zabala izanen da. Bertzeak bertze gai hauek jorratuko ditugu: euskararen historia, gazteen euskararekiko jarrerak, eskualdeko komunikabideak, herri txikien bizitasuna, euskara eta turismoa, etab.

Matrikularen prezioa 4.000 pezetakoa da. Langabetu eta ikasleentzat dohainik izanen da. Hurrengo alean egitarau zehatza emanen dizuegu. Bitartean animatzen hasi eta izenemateko aukera duzue.

KOLABORAZIOA

**Jon GORTARI** *Oronoztik*

# Bertizko Jaurerria



**A**ldamenean eta barride bezala daukagun Bertiz Jaurerriaren historia nahi nuke eskaini. Jaurerri honek kondaira handi bat dauka eta, luzeegi izan ez nadin, apurtxo bat aipatuko dut.
Lehenik, erran 1392.az geroztik agertzen zaigula "Etxalde-Jaurerri" honen kondaira, esku aunitzetatik pasatako Jaurerria izana baita. Oronoz-Mugairetik da bertarako sarrera nagusia,

**Bere eliza eskatzen zuen Oronozek. 1606ko abuztuaren 6an lortu zuen. Hogeita zazpi familia zeuzkan orduan Oronozek.**

Iruña zaharretik 45 kilometrora dagoen lurralde aberatsa. Bi milioi eta laurehun metro karratu dauzka Bertizek. Bederatzi etxek, zazpi etxe eta bi Jauregi ederrek osatzen dute *Señorío* hau; behekoa, 1847.ean eraikia eta goiko ttonttorrekoa, Aitzkolegi izenekoa, 1910. aldera eraikia.
1840. hartan, han nonbait, *'Marqués de Vessolla'*ren eskuetan zegoen jaurerri hau, nahiz eta ordurarte ere bertze zenbaitzuen poderioan egona izan. Bertizko Etxe-Nagusia bezala, Oronoztik bi kilometrotara dagoen *Marquesenea* zen Etxe-Nagusi hori. Vessollak, Jaurerri dena saldu zion Los Arcos deituriko bateri eta honek eraiki zuen orain ezagutzen dugun beheko jauregi eder hau, 1847.ean, erran bezala, eraikia izan zelarik. Aldiz, Los Arcosek urte batzuetara ere, Narbarteko Felipe Oteiza, Arribillagako nagusiari Bertiz dena Pedro Ziga Mayori. Hau azkeneko salmenta izan zen. Pedro Ziga hiltzerakoan, 1949ko abenduaren 27an hil baitzen, honen testamentuz pasa zen Nafarroako Diputazioaren eskuetara.
Historia handi horren barnean Oronoz agertzen eta aipatzen zaigu aunitz aldiz. Erran nahi baita, XV. menderarte, Oronozko biztanleek, Bertizko Jaunari ordaintzen zizkiotela aharako paga-behar edo *diezmo* haiek; bainan, gerora, Jaun honek oronoztarrei barkatu zien ordainbehar haiek, *«por que los hijos de Oronoz no llegaban a perfección»*. Ez dakigu zer erran nahi ote zuen hitz horiekin! Berehala, ordea, Zozaiako Jaunak jabetu nahi izan zuen *diezmo* hauetaz, Oronozko bizilagunak Oieregira lotuak zeudela aitzakitzat hartuz. 1554.ean Oronozek *Pleito Apostólico* bati ekin zion Zozaiako Jaunaren kontra. Pleitu hau 1601.ean bukatu zen, Oronoz berexi eta independizatu zelarik elizaz Bertiz eta Oieregitik. Bere eliza eskatzen zuen Oronozek. 1606ko abuztuaren 6an lortu zuen, Santa María de la Asunción izenarekin inauguratu zelarik. 27 familia zeuzkan orduan Oronozek. Gerora handitu zen orain daukagun eliza.

## PRENTSATIK BILDUTAKOAK



Nafarkaria 97-IX-19

*«Bi urteko epean marka onik lortzen ez badut, seguru askoutzi eginen dut atletismoa».*

**Rafa MARITXALAR**
Korrikalari lesakarra
Nafarkaria 97-IX-19

*«Torturaren biktima izan naiz, eta ez behin bakarrik. Baina, hala ere, biktima den torturatua azkenean erasotzaile bezala jartzen dute».*

**Sotero ETXANDI**
HBko parlamentari arraioztarra
Egin 97-IX-19

## 11 GALDERA LABUR



**Joxe Mari GOIA**
Igantziarra

- **Aste hondarretan, juerga egin edo bizikletan ibili?**
- Biak gustatzen zaizkit, baina bizikletaz ibiltzea gehiago.
- **Zein da bizikletak eman dizun satisfakziorik haundiena?**
- Lehengo egunean Igantzin irabazitako proba, dudarik gabe.
- **Zein da zure helburua kirolean hemendik aitzinera?**
- Hobetzen segitzea, bertzerik gabe.
- **Zein da zure ametsetako kirolaria?**
- Juan Carlos Garro beratarra.
- **Munduko zein tokitara joanen zinateke oporretan?**
- Modua izanez gero, Australiara joanen nintzateke.
- **Igantzi ala Gasteiz?**
- Biak, bakoitzak bere gauza onak ditu.
- **Zein musika mota gustatzen zaizu?**
- Euskal musika, "Negu Gorriak", talde bat erran behar badut.
- **Zer diozu soldaduskari buruz?**
- Arras kontra nagoela.
- **Zein da zuretzat asteko egunik hoberena?**
- Larunbata.
- **Telebista saio bat?**
- "Caiga quien caiga" aunitz gustatzen zait.
- **Bertako neskak ala kanpokoak?**
- Bertakoak ezagunagoak ditut.

Zuzenketa:
Aitzineko alean, sail honetan bertan, Mikel Illarregi Leitzako alkatearen hitzetan paratu genituen berez Leitzako HBk EGIN egunkariari egindako deklarazio zenbait. Barkamenak.




Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317
HARRI NATURALA
ATERATZEA eta LANTZEA
Antzinaldeak, Angeluak, Orma antzinak, Leihoak, Ateak, Arkuak, Pilareak
Tximiniak, Erlaizak, Moldurak, Zokaloak, Hilarriak, Marrazkiak
'Abujardadoa' Zahar antzekoa — Mazizoa Txapeatua
ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK


J. RAMOS
Zolak akutxilatu eta barnizatzen dittut
✆ 631342 BERA • ✆ 637172 LESAKA

Ostargi Optika
Bidasoa karrika, 8 • BERA • ✆ 948 - 63 07 53

SEMPER AUTOESKOLA
Autoeskolan bertan 14 urterekin lortzen ahal duzu zure 49 c.c. motorraren lizentzia
Examinarik gabe!
Eztegara Pasealekua, 18 • BERA
Tfnoak: 630298 (Bera) eta 637206 (Lesaka)

E D A R I A K
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

## 1997-98 Ikasturtea: Matrikulazio datuak

### Eskola publikoak

| | Adinaren arabera | | | Euskara eredua | | | Guzira | 3 urtekoak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Haur H. | Lehen H. | DBH | A | B | D | | |
| Arantza | 12 | 32 | 16 | - | - | 60 | 60 | 4 |
| Areso | 8 | 16 | - | - | - | 24 | 24 | 2 |
| Baztan | 133 | 262 | - | 119 | - | 276 | 395 | 38 |
| Beintza | 3 | 11 | - | - | - | 14 | 14 | 0 |
| Bera | 22 | 50 | - | - | - | 72 | 72 | 5 |
| Bertizarana | 5 | 25 | - | - | - | 30 | 30 | 1 |
| Doneztebe | 89 | 180 | - | 30 | 63 | 176 | 269 | 30 |
| Eratsun | 5 | 3 | - | - | - | 8 | 8 | - |
| Etxalar | 18 | 34 | - | - | - | 52 | 52 | 5 |
| Ezkurra | 1 | 4 | - | - | - | 5 | 5 | 0 |
| Goizueta | 29 | 54 | 20 | - | - | 103 | 103 | 4 |
| Igantzi | 13 | 23 | - | - | - | 36 | 36 | 2 |
| Ituren | 12 | 32 | - | - | - | 44 | 44 | 1 |
| Leitza | 73 | 180 | - | - | - | 253 | 253 | 26 |
| Lesaka | 38 | 66 | - | 4 | - | 100 | 104 | 15 |
| Saldias | 3 | 10 | - | - | - | 13 | 13 | - |
| Sara | | | | 22 | 98 | 0 | 120 | |
| Sunbilla | 10 | 41 | - | - | - | 51 | 51 | 3 |
| Urd-Zugarra. | 12 | 23 | 14 | 18 | 15 | 16 | 49 | 5 |

### Ikastolak

| | Adinaren arabera | | | Guzira | 3 urtekoak |
|---|---|---|---|---|---|
| | Haur H. | Lehen H. | DBH | | |
| Bera | 33 | 102 | 100 | 235 | 7 |
| Elizondo | 42 | 134 | - | 176 | 13 |
| Lesaka | 22 | 46 | - | 68 | 6 |
| Sara | 14 | - | - | 14 | 2 |

### Pribatuak

Bera Ez dizkigute datuak jakinarazi nahi izan
Sara 80 haur, 45 elebidunak, 35 frantses hutsean

### Institutuak

| | DBH | H.Z. | Batxil. | A | B | D |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Bera | 242 | 73 | 91 | 208 | 20 | 178 |
| Doneztebe | 218 | - | - | 34 | - | 184 |
| Elizondo | - | 103 | 72 | 28 | 103 | 46 |
| Leitza | 199 | - | 9 | 9 | 9 | 190 |
| Lekaroz | 323 | - | 110 | 156 | - | 277 |

# 3.715 ikaslek hasi dute 1997-98 ikasturtea

## Horietatik %72,5 euskara hutsean ikasiko dute

3.715 ikaslek hasiera eman diote 1997-98 ikasturteari eskualdeko ikastetxeetan. Horietatik 3.057 derrigorrezko hezkuntzan arituko dira (597 Haur Hezkuntzan, 3 eta 6 urte artekoak; 1.328 Lehen Hezkuntzan, 6 eta 12 urte artekoak) eta 1.132 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (12 eta 16 urte artean). Hauei, Sarako eskola publikoan eta pribatuan arituko diren 11 urte arteko 200 ikasleak eta Berako ikastetxe pribatuan arituko direnak gehitu behar zaizkie. Gainerako 458 ikasleak, Batxilergoa, Heziketa Zikloak edo Heziketa Berezian eman dute izena.

Euskarari dagokionez, aipatu 2.699 ikaslek (%72,6) euskara hutsean burutuko dituztela beraien ikasketak, 353k euskaraz eta erdaraz eta 663k erdara hutsean.

Nabaria da, halere, zenbat eta ikaslearen adina ttikiagoa izan, orduan eta gehiago direla euskara hutsez ari direnak. Adibidez, aurten, 3 urterekin klasean hasi diren 169 haurretatik 30era ez dira ailegatzen erdara hutsezko eredua hautatu dutenak, gehienak Baztanaldean eta Saran. Bortzirietan, 12 urteak arte apenas ez dago ikaslerik A ereduan (erdara hutsean).

Erdaraz edo bietara ari diren gehienak, aldiz, DBHko azken zikloetan edo Batxilergo eta Heziketa Zikloetan ari dira, hau da, hamalau urtetik goitikoak dira nagusiki.

Beraz, erran daiteke, euskara nagusitzen ari dela eskualdeko irakaskuntzan.

Dia % Autozerbitzua deskontua
Hamabostero ofertak
Zatoz eta ikusi
Eztegara, 6 • ✆ 63 14 03 • BERA

OBRA PROIEKTUAK
✓ Etxe berriak eraikitzeko
✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
✓ Urbanizazio proiektuak
✓ Obra-zuzendaritza
Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan
BIDASOA
arkitektura bulegoa
Bittiria, 45 • ✆ 637503 • LESAKA



LESAKA

## BERA

# Joan den igandean iragan zen Dantzari Txiki Egunaren III. edizioa

### Herriko karriketan nahiz frontoian gisa guzietako dantzak ikusi ziren

ASIER GOGORZA

Aspaldian ez bezalako asteburu mugitua subertu zaigu azkeneko hau; dela Gazte Asanbladaren kontzertua, kirol ekitaldiak eta dantzak direla, denak elkarrekin etorri baitziren. Hasiera batean maiatzaren 31n egitekoa zen rock kontzertu hori joan den larunbatean suhiltzaileen parkean ospatu zen azkenik, Koma, PiLT eta Vomito taldeekin.

Biharamonean, goizean goizetik Euskal Herriko hainbat tokitatik bertaratutako dantza taldeek bete zituzten herriko karrikak, Dantzari Txiki Egunaren III. edizioa zela eta.

Mendiko bidaxketan barna, berriz, Agerra Mendi Taldeak antolatutako Mendi Krosean parte hartzen zuten laisterkalariak ageri ziren. Izan ere, egun berberean egokitu baitziren bi ekitaldi hoiek.

Dantzari Txiki Egunerat, Mallabiatik (Bizkaia), Laudiotik (Araba), Behobiatik eta bertze zenbait herritatik etorri ziren dantza taldeak, eta Iamotenea elkartean juntatu ziren lehendabizi. Gero auzoz-auzo eta karrikaz-karrika ibili ziren bakoitza bere dantzak eskeiniz, eta eguerdian Gure Txokoako dantzariek beren etxeetarat eraman zituzten bazkaltzera. Dantza taldeetako arduradun eta jaialdiaren antolatzaileek, aldiz, Iamotenean egin zuten otordua. Guztira 70 bat lagun baziren bazkari horretan.

Bazkalondoan talde guziek dantza jaialdi ikusgarria eskaini zuten Eztegara frontoian.



Argazkia: Asier

### Erreka garbiketak

Irailaren hasieratik 10 langile Zia errekaren bazterretan garbiketa egiten ari dira, eta urrian nahiz azaroan segituko dute beren lanarekin, INEMak eta Nafarroako Ingurugiro sailak sinatu duten lankidetza hitzarmenean aurrikusten denaren arabera. Enpresa kontratugilea, *Confederación Hidrográfica del Norte* da, eta hiru hilabeteotan herria guruzten duen erreka zatia garbitzeko konpromezua hartu du, eta denborarik balego, Bidasoa ibaia ere txukuntzen hastekoa. Lehen ikusi eta orain ikusi, alde ederra nabaritzen da errekan, beraz, eskertzekoa da egiten ari diren lana.

### Herri Ekimenak segida izanen du

Euskal Presoak Euskal Herriratzearen aldeko Bortzirietako Herri Ekimenak ekintza desberdinak burutzen segituko du hemendik aitzinera, eta udazkenera begira zenbait proposamen bildu dituzte. Batetik, Nafarroako *Giza Eskubideak* erakundera idazki bat bidali nahi dute bortz herrietako alkateen izenean, eta bertzetik, herriz herri egiten ari den astebeteko gose greban parte hartzeaz ere solastu dute.

Uztailaren 5ean Beran egin zenaren gisako manifestaldi berri bat egitea ere bururatu zaie, baina ez Beran, Lesakan edo Etxalarren baizik. Bilerak Iamotenean egiten dituzte, ortzegunero, 8.30etan.

## flash

**Helduendako ikastaroak**

Pelukeria eta jostungintza ikastaroak egin nahi dira aurten. Horretarako informazioa eta izen ematea Herriko Etxean, iraila bukaera arte.

**Udal zergak**

Irailaren 12tik urriaren 17a arte zabalduta dago 1997ko 2. hiruhilabeteko uraren ordain-agiria ordaintzeko borondatezko epea. Ondoren, ordain-agiri hauek exekutibo bidez kobratuko dira, premiamendu errekargua, atzerapen interesak eta gerta daitezkeen bertze gastuak gehituta.

***Alkoholiko Anonimoak***

Sasoi honetan urtero egin ohi duten gisan, *Alkoholiko Anonimoak* elkartekoek txarla publikoa emanen dute Beran. Irailaren 27an izanen da, arratsaldeko 8etan Kultur Etxean.

**Euskaltegiak**

Hilaren 15ean ideki zuten IKAko Euskara ikastaroetara apuntatzeko epea, eta urriaren 3a bitarte zabalik segituko du. Izena eman nahi duenak Herriko Etxeko 1. pisuko bulegora jo dezake (6etatik 8etara), edota 631105 telefonora deitu (ordu berdinetan).

FOTO GOIKO
Altzate 26
Tel.-Fax: 630515
BERA

ZALAIN
JATETXEA
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Zalain Auzoa
✆ 63 11 06
BERA
Boda eta banketeak ematen dira

GOZOTEGI-JAIONE
Altzate, 19 • 630786 • BERA

BOTXO ostatua
Tfnoa: 63 00 52
Zalain Auzoa, BERA

## LESAKA

# Herriko historiari buruzko ikastaroa hasiko da urrian

Apuntatzeko epea ortzegun honetan, irailak 25, akautuko da

AITOR AROZENA

Bidasoaldeko Ikerketa taldea eta Lesakako herri eskolak, udalaren laguntzarekin antolatutako Lesakako historiari buruzko ikastaroa hasiko da urrian.

Hameka saioa eginen dira eta astean bi orduz arituko dira. Ingurune naturala eta gizakiaren bizitokia; mendiak eta komunalak; Erdi Aroaren bukaera (XV. mendea) eta Aro Modernoa (XVI-XVIII) eta Garaikidea (XIX-XX) ulertzen saiatuko dira ikastaroan barna, populazioa, lan-alorrak, banaketa soziala eta bertako botere politikoa aztertuz.

Apuntatzeko epea ortzegun honetan, irailak 25, akautuko da, Izarra okindegian, beraz, lehenbailehen mugitu. Matrikulatzerakoan 2.500 pezeta ordaindu beharko dira.



**Juan Pomes kataluniarra nagusitu zen Lesakako Nazioarteko IV. Xake Irekian**

Kataluniako Juan Pomes nagusitu zen irailaren 6an herriko IV. Nazioarteko Xake edo Ajedrez Irekian. Bigarrena Holandako Roberto Cifuentes izan zen eta hirugarrena Unai Garbisu nafarra. Emakumezkoen artean Miriam Muñoz izan zen garaile eta Manuel Reyes izan zen lesakarrik onena, 72. postuan. Parte hartu zuten 109 xakelarien artean, bertzeak bertze, Ukrainia, Andorra, Bulgaria, Errusia, Txile edo Egipto bezalako herrietako jokalariak aritu ziren Lesakako frontoian. Argazkia: Legarra

### Jubilatuen bidaia eta gimnasia

San Fermin elkarteko jubilatuek Erribera aldea bisitatuko dute datorren ortzegunean, urriaren 2an. Goizeko 7,30etan abiatuko dira autobusean. Azkoienen (Peralta) geldituko dira gosaltzera eta gero Kalagorriko (Calahorra) merkatua bisitatuko dute. Gero, Korellan bazkalduko dute. Bueltarakoan Lodosa bisitatuko dute. Bidaiaren prezioa 2.100 pezetakoa da eta txartelak irailaren 28a baino lehen edo autobusa bete bitartean eskuratu beharko dira.

Bertzalde, jubilatuendako gimnasia ikastaroa eginen da urriaren 2tik maiatza bitartean. Klaseak astelehen eta ortzegunetan, arratsaldeko 4,45etatik 5,45etara izanen dira. Izena lehenbailehen eman jubilatuen elkartean.

## flash

**Sukaldaritza ikastaroa** eman nahi da herrian. Horretarako informazioa eta izen ematea Herriko Etxean, iraila bukaera baino lehen.

**Udal planaren hasierako onespena**
Indarrean dauden hirigintza planeamenduko Arau Subsidiarioak ordezkatuko dituen Udal planaren proiektuak udalbatzaren hasierako onespena jaso zuen, PNV eta EAren aldeko botuekin eta HBren abstentzioarekin.

**Matrikulazio kanpaina**
Bortzirietako Euskaltegiak (IKA), euskara ikastaroetan izena emateko epea zabaldu du urriaren 3a arte. Informazioa, Lesakako 637796 telefonoan edo Matxinbeltzeneako 1. pisuko bulegoan.

**Su-hiltzaileen parkea egiteko** lanetarako lehiaketa atera du Herriko Etxeak. Aurrekontua 30.962.901 pezetakoa da (BEZ barne) eta proposamenak urriaren 13a baino lehen aurkeztu behar dira udal bulegoetan.

ROAR LESAKA bideo goxokiak
Bittiriako Plaza 3 • ✆ 637136
LESAKA
• Igande eta jai egunak goizez irekia, 11,30etatik 2etara
• Azken pelikuletan aukera haundiak
• Gozokiak, bonboiak, bolleria...
• Grabatzeko zintak
• Bideoak salgai


Kixkur
ileapaindegia
Orain, pelukera berriarekin
Izaskun Portu
Ordutegia:
Asteartetik larunbatera, goizeko 9etatik 1etara eta arratsaldeko 3etatik 7etara
✆ 637429 • LESAKA

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
✆ 627573 • LESAKA


INAXIO JANARIDENDA
Igandetan 9etatik 13etara irekia
ASTERO eskeintza bereziak
Plaza Zaharra, Tfnoa: 637059 - LESAKA

ANA
janaridenda
Bittiria, 41 • ✆ 63 79 44
LESAKA

## ETXALAR

# Udazken honetarako kultur ekitaldiak ia-ia xehetuak dagoz

Udalak, Altxata Elkarteak eta Euskara Batzordeak antolatzen ditu

PELLO APEZETXEA

Bertze urteetako antzera, kultur ekitaldi saila eskeiniko dira herrian udazkeneko hilabeteetan: lasterketa, antzerkia, karrika animazioko taldea, solasaldia, umorez hornitutako afaria, kantu kontzertua... Xehetasunak ematen joanen gara, eta baten batzuk ondotik dituzue.

### Antzerki emanaldia

Urriaren 4an, arratsaldeko 8etan, Kollins Clown taldearen eskutik, Bikingoak izeneko antzerkia ikusi ahal izanen dugu. Ordu beteko iraupenekoa, Herriko Plazan izanen da. Antzerkiak haur, gazte eta adinekoek ikusteko moduko ixtorioa agertuko dute, Europako iparraldean bizitu zen Bikingoak deitutako herri baten ixtorioa.



**Haurren pilota txapelketa**

Haurren artean jokatu den eskuzko pilota txapelketan, Joanes Irigoien eta Joseba Danborienak eraman dute lehen saria. Mikel Ibarra eta Beñat Irazokik, berriz, bigarrena. Aitor Telletxea eta Jon Santesteban izan ditugu palazko txapelketan irabazleak, Mattin Maia eta Beñat Irazoki bigarrenak. Beti bezala, Jose Mari Arburua izan da animatzaile eta entrenatzailea. Argazkia: Pello

### Azaroko kultur ekitaldiak

Azaroko bigarren asteburuan, kultur ekitaldi ezberdinak izanen ditugu. Hilaren 7an, ortzirala, Bereziartua medikuak eskeiniko du solasaldia. Azaroaren 8an, larunbata, Txiste afaria, Lasarteko kontalari ezagunekin. Igandean, azaroaren 9an, gauza berezia erakutsiko digu Patxi Hernandok, botatzen dugun zenbait zabor probextuz hainbat gauza egiten ahal dela. Ikasgarria eta entretenigarria.

**Argentinatik karta**

TTIPI-TTAPAk duen interneteko zerbitzuaren bidez, TTIPI-TTAPAn bertan argitaratzeko erreguz, eskutitz hau hartu du: *'Joxemanuel Irigoien. Zuzendari jauna. Argentinako La Platan dugun Euskal Etxeko euskera taldeak, Euskal Herrira bere lehen bidaia antolatu ondoren, eskerrak eman nahi dizkie zure bitartez: Pello Apezetxea, Marta eta Karmen Maia Iturbide, Birjinia Arburua, Jabier Sansiñena eta Mariloliri, herri eder horretara egindako bisitaldian eskeini zizkiguten harrera eta saiaketa guziengatik eta elkarrekin bizitutako momentu atseginengatik. Euskera Taldearen izenean: Stella Iturbide'.*


BEKO ERROTA
Lore eta landareak
Frain auzoa • © 63 78 26
LESAKA

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 637127
LESAKA

BEREAU
jatetxea • Hotela
Lesakako Bidegurutzean
Tfnoa: 62 75 09 - LESAKA



XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 63 70 27 LESAKA



BORTZIRI
UNSION ANAIAK
sukalderako haltzariak
ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxa: (948) 63 72 66

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
© 635290
ETXALAR
1997ko uda
Eguneko menua.......1.000 pta
Haurren menua.........800 pta
Paella,entsalada,sangria....1.500 pta
Menu turistikoa.......1.800 pta
...eta nahi duzuna kartan
Astegunetan afariak aurrez eskatuta bakarrik

EROSLE
LESAKA
Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena
Frexkuena zugandik hurbilago
Bittiria, 67 - © 637264

## IGANTZI

# Aurtengo Sanmigelak irailaren 26tik 30era ospatuko dira

Artzain Txakur txapelketa, berriz, urriaren 12an burutuko da

**Ortzirala, irailak 26**
**5etan** pilota goxua (finala). **7etan** berendua. **8etan** txupinazoa, LARRAKAITZ txarangak eta txanpainak lagundurik. Ondotik kankailu eta buruhaundiak ibiliko dira karrikaz karrika. **12etan** dantzaldia LAIOTZ taldearekin.
**Larunbata, irailak 27**
**9etan** gosaria Ziobi mendian. **9,30etan** plater tiraketa. **4,30etan** herri kirolak: Joxe Bikondoa (motozerra) eta Pikabea anaien (arpana) arteko apostua. Iñaki Perurena eta Inaxio Perurena harrijasotzaileen erakusketa. Joxe Bikondoak zutik dagoen enborraren muturra begiak estalita dituela moztuko du. **6,30etan** betizuak ZIZKUITZ txarangak alaiturik. Ondotik buruhaundi eta kankailuak ibiliko dira karrikaz karrika. **12etan** dantzaldia LAIOTZ taldearekin. Arratsaldez eta gauez ZIZKUITZ txaranga.



**Herri bazkarian jende ugari bildu zen iaz. Joan den urtean bezalaxe, bertsolariak eta Zizkuitz txarangakoak aritukod dira animazioa jartzen.**
Argazkiak: Oskar TXOPERENA

**Igandea, irailak 28**
**Haurren Eguna**
Egun guzian haurrentzat jokoak eta gaztelu haizatuak. **10etan** gaiteroak. Iruñeko HAIZALDI taldea. **12etan** kalejira buruhaundieta kankailuekin. **12,30etan** pilota goxua (haurren finala). **6etan** betizuak. **8etan** bertso saioa: Angel Mari Peñagarikano, Unai Iturriaga, Jokin Sorozabal eta Jon Maia. Gai-jartzaile: Jon Abril. **12etan** dantzaldia AMAIA eta KRISTINA trikitilariekin.
**Astelehena, irailak 29**
**San Migel Eguna**
**10,30etan** diana herriko txistulari eta dantzariekin. **11etan** Meza Nagusia herriko abesbatzak kantatua. **12etan** bertako dantza taldearen saioa. **5etan** pilota partiduak: Zubieta-Altzuguren, Irazoki-Retegiren kontra. Goñi-Otxandorena, Mikelperizena-Urrutiaren aurka. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia ARKAITZ taldearekin.
**Asteartea, irailak 30**
**Ezkonduen Eguna**
**11etan** betizuak. **2etan** herri bazkaria, Andoni Egaña eta Xebastian Lizaso bertsolariak eta ZIZKUITZ txarangarekin. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia EGAN taldearekin. Arratsaldez eta gauez ZIZKUITZ txarangak animatuko ditu herriko karrikak


CONSTRUCCIONES MECANICAS
BERRIZAUN S.L.
Eraikuntza eta moldaketak
Despiezea eta makinaria
Mekanika mantenimendua
Igantziko Bentak • © 627572 • Faxa: 637313

SEBERIANO TXOPERENA
Oilasko eta oilanda salmenta
Tfnoa: 627655
IGANTZI





Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14
Beheko Plaza 8, LESAKA

IRUGLAS, S.L.
GRABADOS
GRABATUAK:
Edozein marrazki edo argazkirekin
• Sukalde eta bainurako entzimerak
• Granitoan
• Ispilu eta kristaletan
• Zeramikan
• eta edozein materialetan
ESKUDO HERALDIKOAK
Ateen kristalak grabatzen ditugu, koloretan edo kolorerik gabe
Fraineko Bidea • Tfnoa: 637412 • Faxa: 637800 • IGANTZI






Jose Mª Goia, David Fernandez eta Patxi Irazoki

Argazkiak: Oskar TXOPERENA

# 130 txirrindulari VII. mendi-bizikleta ibilaldian

OSKAR TXOPERENA

Eguraldi ederrarekin burutu zen irailaren 14an mendi-bizikleta proba. Aitzineko eguneko euriarengatik lokaztutako ohiko ibilbidea bi aldiz egin behar izan zuten txirrindulariek. Maila nagusian Jose Mª Goia, Igantziko Biltoki taldeko txirrindularia nagusitu zen, merezimendu osoz, gainera. Egun borobila atera zitzaion eta David Fernandez otsagitarra eta Patxi Irazoki taldekidea gibelera uztea lortu zuen. Laugarren, Santi Iturbide herritarra izan zen.


Jose Mª Goia, txaloen artean helmugaratzen

Gainerako mailei dagokienez, berriz, junioretan Jabier Redin iruñearra izan zen garailea, Asier Apezetxea aranztarra eta Iñaki Agesta sunbildarraren aitzinetik. 15 urte bitartekoetan, Joseba Arrizabalaga, Jabier Martinez beratarra eta Joseba Apeztegia sunbildarra sailkatu ziren. 12 urte bitartekoetan, berriz, hiruak herritarrak: Guillermo Gomez, Aitor Almandoz eta Mikel Antxordoki.

Zozketari dagokionez, hiru sariak banatu ziren: bizikleta haundia Xabier Seini, bizikleta ttikia Bixente Goia beratarrari eta Port Aventurarako bidaia Jesus Mª Seini.

SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK
*Klase guzietako aseguruak herrian bertan!*
Oskar Txoperena • Baratzondo 1 • IGANTZI
Tel.Faxa: 637236 • Mug.: 989 800914

**BI-BIDE**
ostatu
janaridenda
BESTA ALAITSUAK
OPA DIZKIZUEGU
Tfnoa: 63 72 78
IGANTZI

**ATM S.A.**
• Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
• Enbalaketa elementuak eta flejeak.
• Garraio zintak eta mahaiak.
• Mantenu rodilloak.
**Igantziko Bentak • ✆ 63 74 11**


**JOSE AGERRE**
PINTURA LANAK
• Fatxadak garbitu eta pintatu
• Kanpo eta barneko pinturak
• Papera lanak
• Barnizatzeak
• Gotelé
• Moketa eta zintasol
✆ 908. 97 93 06 • 637957 • **IGANTZIKO BENTAK**

JATETXEA
LA VILLA
**Besta zoriontsuak opa dizkizuegu**
Tfnoa: 63 72 90 • IGANTZI

IGANTZI
OSTATUA • JATETXEA • HOSTALA
IGANTZI ostatu-jatetxe-hostalak festa zoriontsu batzuk opa dizkizue
Karrika Nagusia • Telefonoa: 63 75 02

## ☞ ARANTZA

# Irailaren 30etik urriaren 2ra burutuko da Aste Kulturala

### Herriko Etxea, Ekaitza elkartea eta Gazte Asanbladak antolatua

ELIXABET ETA GARBIÑE

Irailaren 30ean eta urriaren 1 eta 2an burutuko da aurtengo Aste Kulturala.

Aste Kultural hau aitzinera eramateko bildu ziren irailaren 16an Herriko Etxeko, Ekaitza elkarteko eta Gazte Asanbladako ordezkariak, denen artean hiru egun hauetako ekitaldiak antolatzeko. Egitaraua guztiz xehetu gabe dago eta orain arte aurreratu duten gauza bakarra, azaroaren 1ean Baserritarren Eguna eginen dutela da. Iaz ospatu zen lehen aldiz Baserritarren Egun hau eta aranztarrek plazaratu zituzten barazki eta baserriko produktuen kopurua ikusita, esperatzekoa da aurten ere bertze horrenbertze presentatzea. Eskulanak eta baratzetako produktuak nahitaezkoak izanen dira, egun arrakastatsua izateko.



Baserriko produktuak plazaratuko dira Baserritarren Egunean

### Tafallako Nafarroa Oinez-era autobusa

Urriaren 7an bukatuko da epea Tafallako Nafarroa Oinezera joateko Gazte Asanbaldak antolatu duen autobusean apuntatzeko. Izena ematen duen jende kopuruaren arabera aterako da hemendik autobusa.

### Pailazoak Udazken Kulturalaren barnean

Bortzirietako Euskara Batzordeak aurtengo udazkenerako prestatutako ekitaldien barnean, azaroaren 2an, igandea, arratsaldeko 5etatik aitzinera, Takolo, Pirrutx eta Porrotx pailazoen ikuskizuna izanen da Arantzako plazan.

## ☞ BORTZIRIAK

### Euskara klaseetan apuntatzeko epea zabalik

Irailaren 15etik urriaren 3a bitarte zabalik egonen da Bortzirietako Euskaltegian (IKA) aurtengo ikasturterako izena emateko epea. Aurtengo leloa, *«Nahi dugu hitz eta jolas»* izanen da eta maila guziak emanen dira, EGA edo 5. maila barne. Klaseak, Lesakan, Beran, Etxalarren, Igantzin edo Arantzan emanen dira eta ordutegiak, bakoitzari komeni zaizkionak izanen dira.

Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko 637796 telefonoan eta Berako 631105 telefonoan (6etatik 8etara), baita zuzenean Lesakako Matxinbeltzeneako lehenengo pisuko bulegora edota Berako Herriko Etxeko lehenengo pisuko bulegora joanez (6etatik 8etara).

Javier Manterola
TEKNIKO INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa
Tfnoa: 630 031 • BERA



ALBERGEA JATETXEA
ATERPE ALBERGEA
✆ 634179
ARANTZA

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

KOXKILA OSTATUA



Zarandia, 4 - LESAKA

Aranguren
Aroztegi mekanikoa
Tel.-Fax: (948) 63 72 58
Tel.mug.: 908 -77 51 85
Otsango industrialdea
31770 LESAKA
• Leihoak
• Aurre-markoak
• Eskailerak
• Fabrikanteak gara

SAROBE okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

GRUPO ZURICH
ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — ✆ 63 07 63

## SUNBILLA



**Abuztuan honelako irudi ugari ikusi genituen igerilekuan**

# Igerilekua itxi ondotik, ehizturien txanda

Trikitixa ikastaroa eta mus txapelketa urritik aitzin

IXABEL ETA JOSUNE

Eguraldi ederrarekin segitzen badugu ere, irailaren 15ean itxi zuten aurtengoz udal igerilekua, hiru hilabetez zabalik egon ondotik. Gehien bat abuztuan ibili da jendea, uztailean eguraldi kaxkar xamarrak egin baitzituen.

### Trikitixa eta panderoa

Ikastaroa urriaren 1ean hasiko da, Josune eta Ainhoaren lokalean, arratsaldeko 5etan.

### Mus azkarra

Urriko lehen ortzegunean hasiko da Fonda ostatuko mus txapelketa. Apuntatzeko, 10etatik aitzinera ostatuan bertan.

### Ehizi denboraldia

Ehizturiek, berriz, hasi dute beraien denboraldia. Irailaren lehenengo ortzegunean basurde ehizikoak eta otsaila bitarte luzatuko zaie tenporada. Usotakoak berriz urrian hasiko dira.

## MALERREKA

# Osasun Zentroko langile batzuk lan banaketa berria izanen dute

Osasun Kontseiluak hala erabaki du

TTIPI-TTAPA

Azkeneko Osasun Kontseiluan onartu zen Osasun Zentroko langile batzuk lan banaketa berria egitea, hau da, mediku eta erizain batzuk herri ezberdinak atenditzera eta, nolabait, lana parekatzea. Orain arte, Doneztebe egiten zuten mediku eta erizainak Bertizarana ere egiten zuten. Baina lana izugarria zela era, ezin iristeak, erabaki bat hartzera behartu zuen Osasun Kontseilua. Honetaz gainera, gerora begira, Doneztebe eta Bertizaranan populazioa haunditzen ari dela ikusiz, aldaketa behar beharrezkoa zen. Hasiera batean, mediku eta erizain bat gehiago eskatzea erabaki zen. Osasun Kontseilariarekin egon baziren ere, ez da erantzunik jaso.

Honen ondorioz, lan banaketa berria onartu zuen Osasun Kontseiluak, bertze berririk ezean. Aldaketa holaxe izanen da: Elgorriagako biztanleak Doneztebera etorri beharko dute eta Doneztebeko mediku eta erizaina izanen dituzte atenditzeko (orain artio Sunbillakoak egiten zuten kontsulta Elgorriagan). Bertzalde, Sunbillako mediku eta erizainak Bertizaranako biztanleak izanen dituzte bere gain. Dena den, aldaketa hau martxan paratu baino lehen, honen berri zehatze emanen da garaiz, lehenbizi Osasun Kontseiluak onartu behar baitu. Afera hau zela eta Jose Miguel Galarregi, Osasun Kontseiluko lehendakariak, dimititu egin zuen, mediku eta erizain berriak lortu ez direlako.


AMEZTIA
Jatetxea - Hostala
Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan
Tfnoa: 450028 • DONEZTEBE


BELARRA
OSTATUA - JATETXEA
Ameztia karrika • DONEZTEBE
Tfnoa: 45 03 06

ALDABE
TAXIA
DONEZTEBE
© 450687


APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK
• Melamina taulak
• Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
• Txapaz estalitako taulak
• Entzimerak
• Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
• Pintura eta bernizak
• Bainurako mobleak eta osagarriak
• KIT mobleak, esku-erremintak, etab...
Tel.: 450 133
451 541
Faxa: 450 334
DONEZTEBE

ARIN ASEGURUAK
Parrokia 21
Tel.-Fax: 450266
DONEZTEBE
• Kotxeak
• Kamioiak
• Etxebizitzak
• Enpresak
• Istripuak
• Bizitza
• Aurrezkia
• Bertzeak

## DONEZTEBE

# Erreka kirol taldeak Zuzendaritza Batzordea berritu du

### Pedro Bañares da lehendakari berria

TXEMA ALDABE

Irailaren 6an burutu zen Errekako Batzar Orokorra. Urteko kontuak ikusi eta gero, orain artio presidentea zenak, Luis Goñik, dimisioa azaldu zuen. Ondorioz, kargu berritzeari ekin zioten eta honela gelditu zen junta berria:

• **Lehendakaria:** Pedro Bañares.

• **1. lehendakari ordea:** Rafa Zabala.

• **2. lehendakari ordea:** Pablo Elizondo.

• **Idazkaria:** Joxe Irigoien Perurena.

• **Diruzaina:** Felipe Ganboa (semea).

• **Bokala:** Patxiku Ganboa (eskubaloia gizonak), Iñaki Martinez (eskubaloia emakumeak), Tomas Uterga (mendi ibilaldiak), Xabier Bañares (txirrindularitza), Luismi Apezetxea (pala gizonak), Alizia Telletxea (pala emakumeak) eta Pedro Miguel Hoyos (atletismoa).

Erran behar da emakumezkoen pala txapelketa irailaren 20an hasi zela eta azaroaren lean akituko dela. Bertzalde, eskubaloi taldeak, senior eta jubenilak, urriaren 4an hasiko dute txapelketa. Infantil eta kadeteak eskola mailan ariko dira.



**Udako barnetegiak euskaltegian**

Hiru hilabetez lau barnetegi ezberdinetan Euskal Herriko txoko guzietatik etorri dira euskara ikastera euskaltegira. Horietaz gain, alemaniar bi, EEBBko bat eta madrildar bat ere bertan izan dira. Denetara, 120 pertsonatik goiti, eta horien artean, Iñaki Urdangarin eskubaloi jokalariaren arreba ere. Bertakoek oraindik ere aukera dute euskaltegian apuntatzeko.

### 13 orduz aszensore barrenean

Horixe gertatu zitzaion Arkupeak elkarteko Joxe Iruritarrari. Jubilatuen egoitzara joan zen lan batzuk egitera eta iluntzean beheiti heldu zela, aszensorea bi pisu artean gelditu zen, atea zabalik. Ordu honetan, inguruan inor ez izaki eta biharamoneko goiza arte hantxe gon zen, 13 orduz. Ez da aipatu beharrik ere, lehenbizikoa agertu zenean hartu zuen poza. Beharrik aszensore bat bertzerik ez dugun Donezteben oraingoz.

### INEMeko bulegoa eta hiltegia botako dituzte

Bi eraikin hauek botata, bertan urbanizazio eta autobus geltokirako markesina bat eginen dute. Hau dena egiteko proiektua udaletxeko arkitektuek eginen dute eta honen kostoa 464.000 pezetakoa izanen da. Markesina hau egiteko, 40 m²ko lur zatia dohainik emanen zaio Nafarroako Gobernuari. Autobus geltokiko aterpe hau Gobernuak eginen badu ere, horren zaintzea eta mantenimendua, Doneztebeko udalarena izanen da.

## flash

**Dirulaguntzak**
Doneztebeko udalak zenbait dirulaguntza onartu ditu: Arkupeak elkarteari 200.000 pezeta jubilatuen egoitzaren mantenimendurako, laxoa elkarteari 62.500 pezeta eta Doneztebeko dantza taldeari 178.590 pezeta, taldekideen jantziak egiteko.

**Elektrifikazio lanak**
13.240.000 pezetako dirulaguntza onartu du Nafarroako Gobernuak, 1997-99 Hirurteko Planaren barnean, Doneztebeko hirigunean elektrifikazio lanak egiteko.

**Gurasoendako euskara ikastaroak**
Interesatuek Malerrekako Euskara Zerbitzura (451746 telefonoa) deitu.


FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBEn
MALDAERREKA, S.L.
24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

SANTAMARIA
Jatetxea
Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

LANCHAS
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Estaldura orokorrak
Bera ✆ 630735 • IRUN ✆ (943) 622305


ETXANDI
TXOKO
jatetxea
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN
Tfnoa: 45 04 91

1997ko irailak 25 / 16. zenbakia

# EUSKARA BATZORDEEN Berriak

*Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen Argitalpena*

**Argitaratzailea**: Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Arantzako Herriko Etxea, 31790 Arantza, Tfnoa: 634125
**Montajea eta Maketazioa**: ttipi-ttapa

## Euskara Zerbitzua finkatua

Joan den otsailean, Bortzirietako Euskara Mankomunidadeak euskara teknikari lanposturako deialdia egin zuen. Frogak maiatza eta ekainean zehar egin ziren eta hamalau lagunek izan bazuten ere, azterketara izangai bakarra aurkeztu zen. Beraz, froga hauek gainditu ondoren, teknikari lanpostua Patri Arburuak eskuratu du eta irailaren 1az geroztik Euskara Zerbitzuan egoten da, goizeko 8etatik arratsaldeko 3,30ak arte.

## Euskara Merkataritzara

Aurten Bortzirietako Euskara Mankomunidadeak iaz hasitako egitasmoari jarraipena emateko asmoz, berriz ere kanpaina hau egiten ari da. Beraz, egun hauetan Bortzirietako merkatari guziek Mankomunidadearen eskutitza hartu izanen dute eta horrez gain, dagoeneko komertzio ezberdinetara bisita pertsonalizatuak egiten ari gara. Aurtengoan Jon Abril ari da bisitak egiten. Halere, bisita iaz euskararen aldeko hitzarmena sinatu zuten establezimenduetara baizik ez dugu eginen.

## Kale neurketa

Aitzineko urteetan egin bezala, aurten ere Mankomunidadeak euskararen kale neurketa egin du gure herrietan, irailaren 15ean hasi eta 21a bitartean. Neurtzaile lanetan Izaskun Abril eta Kristina Lasarte ibili dira. Hauen eginkizuna Bortzirietako karriketan euskararen erabilera neurtzea izan da. Orain neurketa hauen emaitzak aztertu eta baloratzea geratzen zaigu.

# *Euskaltzaleen topaketak*




Ale honekin batera Topaketa hauei buruzko eskuprograma banatu dizuegu. Oraindik izen-emateko garaiz zaudete. Interesa baldin baduzue, dei ezazue 634125 telefonora eta bertan apuntatu ahal izanen zarete

## Transmisio kanpaina

Azken urteotako lanari segida emanez, aste honetan Transmisio Kanpaina martxan jarri dugu. Kanpaina hau Nafarroako mendialdeko Euskara Zerbitzuek antolatu ohi dugu. Helburu nagusia gure herrietako familietan euskara sustatzea da: familian euskara erabiltzea, gurasoek seme-alabei euskara transmititzea baita gurasoak euskaldundu eta alfabetatzea ere. Horretarako, Bortzirietako ikastetxeetako 3-16 urte bitarteko ikasleei diptiko bat banatu diegu. Bertan gurasoak euskaltegira joan daitezen animatzeaz gain, neska-mutilak ezkolaz kanpoko euskarazko jardueren zerrenda ere banatu diegu. Kanpaina honek segida izanen du, eguberri partean euskarazko joku, jostailu eta produktuen katalogoa banatuko baitiegu.

## Mozorro Berri antzerki kanpaina

Aurten ere, Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak Mozorro Berri Antzerki Kanpaina antolatu du. Kanpaina honi esker, Bortzirietan bi antzerki emanaldi izanen ditugu. Lehenbizikoa Etxalarren izanen da, datorren urriaren 4an, gaueko 8etan frontoian. Emanaldia Kollins Clown taldearen *"Bikingoak"* antzeslana izanen da. Bigarrena berriz, Lesakan izanen da azaroaren 23an, arratsaldeko 5etan eskolako gimnasioan. Emanaldiari dagokionez, talde beraren *"Ongi etorri mendebaldera"* antzeslana ikusiko dugu.

# *Fernando MIKELARENA eta Patxi LARRETXEA:*
# «Industrian lan egiteak kontzientzia soziala sortu du Bortzirietan, eta nazio kontzientzia lagundu»

❖ Patxi Larretxea eta Fernando Mikelarena bortziritarrak dira, arantzarra Patxi eta beratarra Fernando, nahiz eta biak orain Beran bizi diren. Soziologia eta Historian lizentziatuak, CSIko lantegian egiten du lan Patxik eta Zaragozako Unibertsidadean Fernandok.

❖ Irabazibide duten lan horretaz aparte, Bidasoako Ikerketa Zentroan ere lankide dira zenbait ikerketa lanetan, adibidez, 'Euskara, nazionalismoa, erregionalismoa eta identitate kolektiboa' izenburuko lana. Bukatu berri den uda honetan aurkeztu dute lana, Euskal Herriko udako ikastaroetan. Ondoko hilabeteetan argitaratzeko asmotan dira.

❖ Fernandok argitaratua du lehenagotik, Nafarroako biztanlegoari buruz burututako tesia. Patxi euskara irakaskuntzan eta bertsolari munduan ibilia da, gehien bat.



**'Euskara, nazionalismoa, erregionalismoa eta identitate kolektiboa' izenburu duen ikerketa lana burutu duzue. Bertan ageri den gauza bat, euskaldun kopuruak Nafarroan eraman duen prozesua da, gutitze prozesua, noski. Nolakoa izan da prozesu hori, Bortziriei dagokienez?**

**Patxi Larretxea.** Bortzirietakoa ez dugu xeheki landu. Dena den, ezaguna da industrializatzearekin, orain dela 30-35 urtetik hasita, kanpotarren etorrera inportantea izan dela, eta, berorri lotua, erdalduntzearen indartzea. Indartzea, zeren eta lehenagotik ere, eskola erdaldunaren ondorioz eta, erdalduntzea gauzatzen ari zen. Hala ere, ikastolak sortu, eskoletan D eredua sartu, Gaueskolen lana, etabar, euskara bere lekua berreskuratzen joan da. Duela hamabortz urte baino euskara gehiago entzuten da karrikan gaur. Erdararako joera, emakumearen aldetik batez ere, haundiagoa zen.

**Erdalduntzeko bilakaera ez zen lehenagotik ere gertatzen ari, Beran erratе baterako?**

**Fernando Mikelarena.** Bai. Gogoan izan behar dugu Beran aspalditik bazela lantegi bat, Fundizioak. Edo eta, hemen kanpotar multzo haundi samarra bizi zela. Berako 1930eko erroldan, adibidez, 300 kanpotar ageri dira, guardia zibil eta karabinero, batez ere, eta beren familiak. Eta Etxalarren ere gauza bera gertatzen zen, neurri ttikiagoan bazen ere. Kokapenak ere badu zerikusi nabarmena, noski, euskara galtzearekin; herri bat pasaleku izan edo ez, alegia. Bera Arantzarekin konparatzen badugu, aisa ohartzen ahal gara, jendea pasatze edo ez pasatzearen eraginaz. Bertze fenomenoa ere gehitzen ahal diogu zerrenda honi: neskak kanpora joaten ziren lanera, Donostiara, Frantziara, Iruñera. Eta handik ohitura linguistiko diferentea ekartzen zuten.

**Zuen lanean, Euskara eta nazionalismoaren arteko harremana aztertu duzue. Nolakoa da harreman hori, Baztan aldean eta Bortzirietako eskualdean? Zeren euskaldungoa haundia baita Baztanen, ez, ordea, nazionalismoa.**

**Mikelarena.** Baztanen, edo eta Malerrekan. Adibide bezala, Urrotzkoa gogoratzen ahal dugu. Erabat euskalduna izanagatik, botu gehiena UPNk bildu zuen.

**Larretxea.** Baztangoa argia da, eskualde oso batean ageri dena. Nahiz eta azken aldian UPNren botuak guttitu diren.

# Berriak

**Mikelarena.** Zera ikusi dugu, nazionalismoak baduela lotura hizkuntzarekin, bai. Baina ez dela, hizkuntzarena, kasu honetna euskara, lotura bakarra, badela bertze loturarik ere. Badela lotura adibidez, industrian lan egitearekin. Industrian lan egiteak kontzientzia sozial bat sortzen duelako.

**Zer erran nahi du horrek, kontzientzia sozialak ere baduela zerikusia kontzientzia nazionalistarekin?**

**Mikelarena.** Bai. Eta industrigintzan aritzeak kontzientzia soziala sortzen duen bezala, kontzientzia nazionalista ere sortarazten duela. Horregatik da ezberdina nazionalismoaren egoera Baztanen eta Bortzirietan: han ez da industriarik eta hemen bai.

**Larretxea.** Ni ere ados nago Fernandok dioenarekin. Kultura eta hizkuntzan hain hurbilekoak eta antzekoak diren Baztan eta Bortzirietan horrelako diferentzia ikustea nazionalismoan, hango jendartea pixka bat ruralagoa eta hau industrialagoa izateari zor zaiola iduri du. Horrek bizimodua aldatzen du.

**Mikelarena.** Dena den, pertsonek ere badute eragina. Baztanen kargu politikoetan aritu direnen eragina ere kontuan hartzekoa da, behar bada. Bortzirien kasuan, Gipuzkoaren hurbiltasuna ere aipatzekoa da.



*«Nafarroan euskal kontzientzia nazionalismoa baino zabalagoa da»*

*«Nafarroako eskuinak euskara nafarren ezaugarritzat hartu behar luke»*

**Larretxea.** Bertze eragile bat mugimendu sindikala dugu. Bortzirietako industrian ELA eta LAB - sindikatu abertzaleak nagusi dira. CCOOek, berriz, indar ttikia du eta UGT ia-ia ez da existitzen. Bilbon sindikalgintzaren protagonistak etorkinak izan ziren bezala, hemen nazionalistak izan dira. Sindikatu abertzale horiek lagundu dute, neurri batean, nazionalismoaren garapena.

**Industrializatzeak nazio kontzientzia indartu duela diozue Bortzirietan, Baztanen ez bezala. Erran daiteke antzeko zerbait euskararen iraupenari buruz? Zera alegia, industria gabe euskara galtzeko arrisku haundiagoa dagoela?**

**Larretxea.** Nafarroako eskuinak euskara baztertu egin du, eta orain ere hala egiten du; eta, hain zuzen, nazionalismoarekin lotua dagoelakoan baztertzen du, botu nazionalistak euskarak sortzen dituelakoan. Hori, ordea, gaur behintzat, ez da egia. Gaur Nafarroan ez du zergatik nazionalista izan behar euskara ikasteko, haurrak ikastolara bidaltzeko. Eta zenbat eta behitiago, orduan eta garbiago ikusten da hori. Ezin dugu ukatu instituzioetan nazionalistak badaude, gehiago laguntzen dutela euskara, espainolistek ez bezala, hauek oztopo gehiago paratzen baitizkiote. Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Erkidegoan ikusten ahal dugunez. Hala ere, euskal kontzientzia nazionalismoa baino hedatuagoa dago. Nazionalismoak Nafarroan botutan beheiti nabarmen egin badu ere, euskara irakaskuntzan eta goiti doa.

**Mikelarena.** Inkesten arabera, euskararen aldeko jarrera nazionalisten kopurua baino haundiagoa da.

**Ez duzue, bada, erranen, berdin dela euskararentzat agintean nazionalistak edo ez nazionalistak egotea.**

**Larretxea.** Ezin dugu ukatu, instituzioetan nazionalistak badaude, gehiago laguntzen dutela euskara, babes politiko haundiagoa eskeintzen diotela. Espainolistek ez bezala, hauek oztopo gehiago paratzen baitizkiote euskarari.

**Mikelarena.** Baina logikoki ez luke horrela izan behar. Hara zer gertatzen den Katalunian, non adostasun haundiagoa baitago hizkuntzaren inguruan. Kataluniako Alderdi Sozialistak katalanaren alde egiten du. Galizian, Fraga bera galegoz mintzatzen da hitzaldietan. Nafarroan, berriz, ez dut inondik ere ikusten Miguel Sanz euskaraz solasten. Hemen, ordea, bada izugarrizko nahasteborrastea politikagintzan.

**Larretxea.** Nafarroako eskuinak Nafarroako patrimoniotzat jo behar luke euskara. Juan Kruz Allik, presidente izan zenean, jarrera hori hartu zuen, nafarren norberatasunaren ezaugarrietako bat euskara zela aldarrikatu. Eta agintariek hori onartzen ez duten bitartean, euskararen kaltetarako gertatuko da.

**Mikelarena.** Baina non jaso zituen botuak Juan Cruz Allik? Iruñerrian eta iparraldean. Ez, ordea, Erribera aldean. Hau da, euskal kontzientzia haundiagoa den tokian.

# Udazken Kulturala, Herriz herri

Bortzirietako Euskara Batzordeak urtero bezala, aurtengo udazkenerako ere kultur ekitaldi ugari prestatzen ari dira. Hona hemen horien aurrerapen bat:

## IGANTZIn:

• Urriaren 29an, asteazkena, 7,30etan:
HITZALDIA: *"Landareak eta frutarbolak"*.
Jakoba Errekondo.

• Urriaren 31n, ortzirala, 7,30etan:
MAHAINGURUA: *"Baserritik mahaierako bidea"*.
EHNE, nekazariak, baserritarrak, erosleak...

• Azaroaren 1ean, larunbata, 9,30etan:
TXISTE AFARIA: Lasarteko txiste kontalariekin.

## ARANTZAn:

• Azaroaren 2an, igandea, 5etan:
Takolo, Pirrutx eta Porrotx pailazoen emanaldia

## ETXALARren:

• Azaroaren 7an, ortzirala, 7,30etan:
HITZALDIA: *"Osasunari buruz"*.
Julian Bereziartua

• Azaroaren 8an, larunbata, 9,30etan:
TXISTE AFARIA: Orioko txiste kontalariekin.

• Azaroaren 9an, igandea, 4etan:
MUSIKA TAILERRA haurrentzako, Patxi Hernandorekin.

## BERAn:

• Urriaren 11n, larunbata, 9,30etan:
TXISTE AFARIA Orioko txiste kontalariekin.

• Azaroaren 3an, astelehena, 7,30etan:
HITZALDIA: *"Itxasoari begira"*.
Joxe Ramon Agirre.

• Azaroaren 5ean, asteazkena, 7,30etan.
HITZALDIA: *"Bi emakume Turkiatik Birmaniara bizikletaz"*.
Esther Mugertza eta Amaia Elosegi

• Azaroaren 10ean, astelehena, 7,30etan:
HIZTALDIA: *"Guatemalara bidaia"*.
Jon Sarasua, Amaia Antero eta Kontxi Erro.

• Azaroaren 12an, asteazkena, 7,30etan:
HITZALDIA: *"Alaskatik Tierra del Fuegora bizikleta"*.
Nandus.

## LESAKAn:

• Azaroaren 8an, larunbata, 4etan:
Haurrentzako txontxongilo tailerra.

• Azaroaren 15ean, larunbata, 4etan:
Haurrentzako erreziklaia tailerra.

• Azaroaren 22an, larunbata, 4etan:
Haurrentzako musika tailerra.

• Azaroaren 29an, larunbata, 4etan:
Haurrentzako natura tailerra.

• Abenduaren 2an, asteartea, 7,30etan:
HITZALDIA: *"Euskara, Nafarroa eta nazionalismoa"*.
Patxi Larretxea eta Fernando Mikelarena.

**AHOLKURIK BEHAR IZANEZ GERO, DEITU**

*Etxe berriari izena nola idatzi, hilarrietako plakatxo bat nola moldatu edo komertzio, jatetxe edo ostatu berriaren izena euskaraz nola idatzi ez badakizu, deitu*

**✆ 634125**

## MALERREKA

# Urrotzko Sanmigelak irailaren 26tik 30era ospatuko dira

### Etxekoandreen Egunarekin hasi eta karrikak garbituz akituko dira

**Ortzirala, irailak 26**
**Etxekoandre Langileen Eguna**
**8etan** altxaferoak eta ezkilak, bestari hasiera emanez. **8,30etan** Zopak eta Txuri-beltzak Herriko Ostatuan. **12etatik aitzinera** Mozorro-dantza JOXE ANGEL akordiolariarekin.

**Larunbata, irailak 27**
**Ezkongabeen Eguna**
**10etan** argi soinuak eta gosaria ostatuan. **12etan** mus eta txintxon txapelketen hasiera. **1etan** herriko gazteen artean pilota partiduak. **5etan** antzerkia. Collins Klown taldearen *'Txipendilerendi'* antzeslana. **Arratsaldez** eta **gauez** dantzaldia ELURTE taldearekin.

**Igandea, irailak 28**
**Jubilatuen Eguna**
**11etatik** aitzinera, bertako artisauek lanen erakusketa eginen dute. **12etan** mus eta txintxon txapelketen finalak. Sariak banatuko dira. **1etan** aizkora apostua: Etxeberria-Jaunarena, Mindegia-Senosiainen aurka, 12 kanaerdiko mozten.



**Berrogei urte ditu argazkiak. Urrotzko gazteak ageri dira etxez etxe erronda egiten**
Argazkia: Nati TELLETXEAk utzia

**Goiz-arratsaldez** gaztelu haizatua eta karts-ak, IRUÑA PARKen eskutik. **Arratsaldez eta gauez** ELURTE taldea.

**Astelehena, irailak 29**
**San Migel Eguna**
**Goiz-arratsaldez** herriko gaztetxoen kalejira. **12etan** Meza Nagusia. Ondoren, hameketakoa Herriko Ostatuan. **5etan** pilota partiduak herriko gaztetxoen artean. Sariak banatuko dira. **6etan** haur jokoak eta berendua. **Arratsaldez** eta **gauez** dantzaldia JOXE ANGEL akordiolariarekin. Ondoren, txistorrada.

**Asteartea, irailak 30**
**Herritar guzien Eguna**
**1etan** aizkora apostua: Jose A. Mindegia, Jon Telletxearen kontra, bosna enbor. **2etan** herri bazkaria, Amuriza eta Peñagarikano bertsolariekin. **6etan** sokatira eta txingak, ezkonduak ezkongabeen kontra. **Arratsaldez** eta **gauez** dantzaldia SALABERRI akordeolariarekin. **10etan** xingarra jatea herriko plazan. **Goizaldeko 5ak** aldera, bestei akabaila emanen zaie, herriko karrikak garbituz.

**Herriei eman beharreko transferentzia arruntak erabaki ditu Nafarroako Gobernuak**

Irailaren 1ean onartutako Foru Dekretuan Nafarroako herriek Nafarroako Gobernutik aurten jasoko dituzten transferentzia arrunten kopurua onartu zen.

Malerrekari dagokionez, **Beintza-Labaien**ek 5.702.898 pezeta jasoko ditu; **Donamaria**k 6.724.073 pezeta; **Doneztebe**k 32.345.908 pezeta; **Elgorriaga**k 3.380.364 pezeta; **Eratsun**ek 3.708.278 pezeta; **Ezkurra**k 4.832.835 pezeta; **Ituren**ek 9.745.891 pezeta; **Oitz**ek 2.750.909 pezeta; **Saldias**ek 3.170.238 pezeta; **Sunbilla**k 13.214.364 pezeta; **Urrotz**ek 3.737.680 pezeta eta **Zubieta**k 7.196.761 pta. **Bertizarana**ko udalak 3.855.301 pezeta jasoko ditu; **Legasa**ko kontzejuak 3.557.346, **Narbarte**k 4.750.188 pta eta **Oieregi**koak, 1.251.288 pezeta.

Diru kopuru hau, biztanle kopuruaren arabera hartzen da, gehien bat.

Servicios de Asistencia Personal S.Coop.
SEINDEA
Laguntza Pertsonaletarako Zerbitzuak Kb

**Arreta eta zainketa pertsonala:**
- Haurrei
- Eriei
- Ezindu fisiko eta psikikoei
- Bere buruaz baliatzen diren eta ez diren adintuei

Zona guziko langileak
Nafarroako mendialde osorako zerbitzua

- Garbitasun pertsonala, ohatzean daudenen mugitzea, medikazio eta jatekoen kontrola...
- Garbitasuna etxean, arropa garbitzea eta txukuntzea, sukaldea...
- Laguntza psikologikoa eta afektiboa
- Aisialdirako ekitaldietan konpainia: paseoak, irakurketa, eskurtsioak...
- Erosketak, tramiteak, gestioak edo medikuari bisitak egiteko laguntza

Zerbitzua kontratu eta Erantzukizun Zibileko aseguruaren bitartez bermatua

Urteko egun guzietarako zerbitzua, edozein ordutan (goiz, arratsalde edo gauez), behar duzunean

Nafarroako Aurrezki Kutxako Club Edad de Oro txartelaren jabeendako **prezio bereziak**
**Bulego orduak:** Goizeko 9etatik 1etara eta arratsaldeko 4,30etatik 7,30etara.

**Informazioa eta kontsultak:**
Trinidad 12, behea
31860 IRURTZUN
Tel-Faxa: 50 01 28

## GOIZUETA

# Umore Onako pilota taldea txapel haundienaren bila

### Asteburu honetan hasiko da Kluben arteko Espainiako pilota txapelketa

ESTEBAN AROZENA

Klubak edo taldeak ordezkatuz pilotari afizionatuek jokatzen duten txapelketarik garrantzitsuena –Espainiako Ohorezko dibisioa– asteburu honetan hasiko da, eta bertan, bigarren urtez jarraian, herriko Umore Ona izanen da partaide estatuko beste hamaika klubekin batera.

Iaz maila ona eman zuten Umore Onakoek lehia honetan, baina aurten askoz itxaropentsuago daude Angel Salaberria eta bere mutilak. Dirudienez, taldea hobetu egin da, eta konpetizioaren barrenean sortu litezkeen hutsuneak errezago beteko dira edizio honetan. Kontuan izan behar da Almandoz lesakarrak goizuetarrekin segituko duela berriz ere, eta gainera, Aimar Olaizola Atarrabiako Paz de Zigandatik Umore Onara etorri dela txapelketa honetarako. Bi pilotari haundi hauei, Juantxo eta Joxeanton Apezetxea gehitzen baldin badizkiegu, talde honen potentziala zenbatekoa den begi-bistan dago edozeinentzat. Beraz, ezin da inolaz ere harrokeritzat jo, txapelketaz galdetu genionean Salaberria delegatuak erantzun ziguna, aurtengo helburu bakarra Umore Ona elkarteko bitrinetara txapela ekartzea dela, alegia. Seina taldeko bi multzotan banatuko dira partaideak, hurrengo abendu arte iraungo duen joan-etorriko ligan. Multzo bakoitzeko bi lehenengoek, finaletarako txartela eskuratuko dute.

Esan beharrekoa da, pilotariek arazorik ez izanez gero, larunbat ilunabarretan jokatuko direla partiduak, bat buruz-burukoa eta bestea binakakoa, jakina den bezala. Gainera aipatu, lehen esandakoez gain, Jon Goizueta, Iban Arozena eta Xabier Berroeta ere taldean daudela, guztiak Angel Salaberriaren gidaritzapean.



#### Jexux Etxegiak bake-epaile lanean segituko du

Jexux Etxegiak beteko du hurrengo lau urteetan bake-epailearen lana, orain arte bezala Juanita San Miguel izanen duelarik laguntzaile.

1982an izendatu zuten Jexux lehenengo aldiz postu horretarako, eta geroztik, hilabete batzutan izan ezik, bera izan da beti herriko bake epailea.

#### Euskal presoen aldeko mozioa onartua

Euskal presoen aldeko mozioa onartu zuen udalbatzak azkeneko plenoan, guztiak Euskal Herriratzea eta kondenaren hiru laurdenak bete dituztenak eta gaixotasun sendaezinak dituztenak kaleratzea exijituz beste puntu batzuen artean.

## ARESO

# Uda bukatuta, udazkeneko lanei lotu zaie jendea

### Belarrak ontzeko lanak, eskola, ehiza

JUANA Mª SAIZAR

Uda bukaera honetan, nekazariek belarrak ontzeko lanak bukatuak dituzte jada eta garoa ebakitzen hasiak dira, baita banabarrak biltzen ere. Lan hauetarako sasoi aproposa baita. Umeak, bestalde, ikasturte berriari hasiera eman diote. Denetara 24 dira, 3 eta 12 urte artekoak. Hiru gelatan banatuta daude, gela bakoitzean hiru maila.

Ehiza garaia ere hemen dugu, bi berrirekin. Alde batetik, ehiza postuen subasta irailaren 20an egin zen eta postu hauen sexta irailaren 27an izango da. Bestalde Enagas, gas naturala banatzen duen enpresa, Nafarroako Gobernuarekin akordio batera ailegatu da. Aresoko tramoan, lanen hasiera atzeratuko dute, ehiza denboraldia bukatu arte.



#### Leitzaldeko igeriketa txapelketa

Hiru aresoarrek parte hartu zuten. 5 urtetan txapeldun izan zen Zuriñe Goikoetxea eta 8 urtetan, Maitane Gereño lehena eta Uxue Goikoetxea bigarrena.

#### Gripe txertoa

Gripearen aurkako txertoaren kanpaina urriaren 3a eta 25ean eginen da kontsultan, 12etatik 1etara.

## LEITZA

# 'Familia langile' izateko lau lanposturako lehiaketa zabalik

### Eskaerak Mankomunidadearen bulegoan aurkeztu behar dira

JOSEBA AZPIROZ

Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzua kudeatzeko, familia langile izateko lau lanpostu, lan araubidean eta oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia luzatu du mankomunitateak. Izendatuek lan kontratu finkoa izanen dute, hauetako bi egun osokoak eta beste biak jornada erdikoak. Familia langileak lagundutakoaren zainketa orokorrarekin ikustekoa duten lanetan ariko dira: zainketa pertsonala, osasun, higiene, elikadura eta gorputz arlokoak; etxe eta arropen garbitasuna; janarien zaintza... Oposaketan parte hartzeko gutxienez Eskola Graduatua titulua edo Lehen Graduko Lanbide Heziketakoa edo baliokideren baten eta kotxea gidatzeko baimena eta ibilgailuaren jabe izan beharko dute. Eskaerak, Mankomunitatearen Erregistro Orokorrean (bulegoa Leitzako Osasun Etxean dago) aurkeztu beharko dira, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik, hilabeteko epean.



### Elikagaien Maneatzaile agiria lortzeko azterketa urriaren 10ean Udaletxean

Urriaren 10ean, ostirala, arratsaldeko 3etan, udaletxeko lehenengo solairuko gelan, Elikagaien Maneatzaile agiria ateratzeko azterketak eginen dira. Nortasun agiria edo, izanez gero, zaharkitutako Elikagaien Maneatzaile agiria aurkeztu behar dira. Agiri hau elikagaiekin kontaktu zuzena duten guztiek beharrezkoa dute.

Argazkia: Joseba

### Gripearen kontrako txertaldia

Osasun Etxetik adierazi dutenez, irailaren 22tik urriaren 3a arte luzatuko da gripearen kontra txertatzeko kanpaina, 12etatik 1etara arteko ordutegian. 65 urtez gorakoak, eritasun kronikoak eta zerbitzu publikoetan lanean aritzen direnak dira arrisku gehiago dutenak eta beraz, txertoa hartu beharko luketenak.

### Karrape Irratia

Udalak Karrape Irratiaren esatari zerbitzua kontzesio bidez emateko lehiaketa deialdia zabaldu du. Proposamenak datorren asteartea, irailak 30, eguerdiko 12ak baino lehen aurkeztu behar dira, udal bulegoetan.

## flash

**Autobusa Iruñera**
Egunero Iruñera joan behar duen jendearentzat autobus bat jarri nahi da. Autobusa goizeko 7ak aldera aterako litzateke herritik eta Iruñetik Leitzara, berriz, arratsaldeko 3ak aldera. Interesatuek, lehenbailehen, telefono honetara deitu behar dute: 610617.

**Leitzako Moto Igoera igandean**
Iruñeko Moto Klub-Moto Krak elkarteak antolatuta, igande honetan, irailak 28, arratsaldeko 4etan, Nafarroako txapelketarako baliagarri izanen den Leitzako igoera ospatuko da. Ibilbidea Leitzatik Goizuetako bidegurutzera izanen da.

**Su-hiltzaile parkearen** zabalkuntza lanen lehiaketa publikoaren deialdia zabaldu du udalak. Aldagela eta dutxak dira egin beharrekoak eta 5.120.440 pezetako aurrekontua dute. Proposamenak urriaren 10eko eguerdiko 12ak baino lehen egin behar dira.

Elizatze
ERLOJUTEGI BITXITEGIA
Nafarrentzat prezio bereziak
Landetxe Enparantza © 943.492698 OIARTZUN



Betiko platerrez gain, bereziak ere eskaintzen dizkizugu.
Eta ezkontzea pentatu baduzu, harrituko zaitugu!
Basa Kabi
Tel. 510125 • Faxa: 610965
LEITZAko gaina

LEITZA

*"KARRAPE UDAL IRRATIA"*
*Gestio kontzesioa*

"KARRAPE" udal irratiaren esatari zerbitzua kontzesio bidez emateko lehiaketa deialdia zabaltzen da.

**Proposamenak aurkezteko epea:** 1997ko irailaren 30eko eguerdiko 12:00ak arte.

Baldintza ekonomiko administratiboak Udal Idazkaritzan.

*Leitzan, 1997ko irailaren 8a*
*Alkatea, Mikel Ilarregi*

muñeca de Trapo
IRUN
Luis Mariano, 35
Tel.: (943) 62 52 55

## BAZTAN

# Hamar herrialdetako nekazariak bildu dira Oronozen

## EHNEk antolatuta, baserriko produkzio moduak eztabaidatu dira

JOSEBA IGARABIDE

*«Europatik datorren kantitatezko produkzioaren ordez, baserri giroko kalitatezko produkzioa»* bultzatzeko helburuarekin, desintentsifikazioari buruzko Europar Mintegia burutu da asteburu honetan Oronozko San Martin eskolan.

Mintegi hau EHNE erakundeak antolatu du, Europako bertze zenbait nekazal sindikaturekin batera eta hamar herrialde ezberdinetako ehun ordezkaritik goiti bildu dira Oronozen. Mintegian parte hartu dutenen ustez, *«nekazaritzaren balio soziala erabat baztertuirik geratzen ari da eta merkataritzaren lege soilen bidez kuantifikatzen ari da»*. Hori dela eta, enplegua, ustiategi txikiak eta jarduera ez intentsiboak mantentzeko garatu beharreko alternatibak aztertu dituzte, desintentsifikazioak sortzen dituen arazoak eta eskaitzen dituen aukerekin batera.



**Baztan futbol taldeko sariak banatu ziren**

Baztan futbol taldean, 1996-97 denboraldiari dagozkion sariak banatu ziren. Goleatzaile onena Asier Hernandorena izan zen eta jokalaririk erregularrena, Juan Jose Mitxelena. Sariak Iruritako Olari jatetxeko eta Elizondoko Mendi ostatuko ordezkarietatik jaso zituzten. Argazkia: Ondikol

### Kiroldegiko ordutegia

Udal polikiroldegia eta frontoi estalia 1997-98 denboraldian erabiltzeko egutegia osatu behar da. Ordu berak eskatuz gero, lehenik eskatu duenari emanen zaio baimena.

### Gripearen txertoa

Irailaren 15ean hasi zen gripearen aurkako txertoaren banaketa. Baztanen 1.300 bat lagunek hartzen dute txertoa. 65 urtetik goitikoei, gaixotasun kronikoa dutenei eta langile publikoei aholkatzen zaie.

### Arraiozko saihesbidea

265 milioi gostako den proiektua onartu du Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabide sailak. Errepide berriak, 1.161 metro izanen ditu eta zubi berria eginen da.

## flash

**Emakumeendako ikastaroak**

Nafarroako Emakumearen Institutuak Marrazketa artistikoa, helduendako eta 5-10 urtekoendako, altzari zaharren konponketa, bi txandatan banatuak. Izen ematea Balleko Etxean, urriaren 1a baino lehen, goizeko 9etatik 1etara. Hamasei urte baino gehiago izatea, gutienez hamabost lagun biltzea. Onartuen zerrenda udaleko iragarki taulan agertuko dira. Baztandarrek lehentasuna izanen dute.

**Arraiozko apeza**

Isidro Herguedas Sukia izanen da hemendik aitzina. Iruritako apeza lana ere berak beteko du.

**Sotero Etxandi**

arraioztarrak milioi laurden pezetako isuna ordaindu beharko du, Baztandarren Biltzarreko gertakarien ondorioz. Guardia zibilaren bertsioa ontzat eman zuen epaileak. Bertze guardiazibil bati, bazkari batean *torturatzaile* deitzeagatik 40.000 pezetakoa ordaindu beharko du.

Pierresenea
OSTATU - JATETXEA
*Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa*
Iturriotz Auzoa • ✆ 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

**OPS** *Ingenieros S.L.*
• **Topografi lanak:** Lur neurketak, balorazioak.
• **Nekazal proiektuak:** Bideak, ur depositoak, etxebizitzak, granjak, nabeak...
**Barañain Etorb.2 • IRUÑA • Tel: 267453-267602**

TRIKITIXA DENDA-AKADEMIA
ZURE SOINUA
EROSI AURRETIK
INFORMATU ZAITEZ
*San Pedro, 7 • IRUN*
*Tel.: (943) 63 19 66*
LURHAIZ

## BAZTAN





Goitian, 1990. urteko zikiro jate egunean ateratako erretratoa. Eskuineko argazkiak urte gehiago ditu. 1932. urteko bestetan zahar eta gazte koadrila ageri da, Gaintza akordeonista eta Antonio Elizalde txistulariarekin

Argazkiak: Ainhoa MARITORENAk utziak

# Anizko bestak, urriaren 4tik 7ra

Arrosarioko Amabirgiñaren ohorez

**Launbeta, urriak 4**
**Bezpera**

**8etan** altxaferua bestei hasiera emanez. **12,30etatik 1etara** MUNDIÑANO Anaien emanaldia. **1etan** ANJE DUHALDEren kantaldia (sarrera dohainik izanen da). **3etatik 5etara** dantzaldia MUNDIÑANO anaiekin. Ondotik zingerjatea.

**Igandea, urriak 5**
**Arrosarioko Amabirgiñaren Egune**

**11etan** Doneztebeko txistularien kalejira. **12etan** Meza Nagusia. **1etan** otordue. **5,30etan** pilota partiduak. Ondotik dantzaldia.

**Astelehena, urriak 6**
**Haur eta baserritarren Egune**

**9,30etan** Baztango II. Golf txapelketa. **12,30etan** mus txapelketaren kanporaketak. **5,30etan** Anizko futbito txapelketaren finala. **7etan** haur jokuak. Akitzean, txokolatada. **9etan** tortilla txapelketa. **9,30etan** herri afarie Che Guevararen omenez. Afalondoan, dantzaldia JOXE ANGELekin. Ondotik, III. Kantzontzillo txapelketa.

**Asteartea, urriak 7**
**Adiskidetasunaren Egune**

**11etan** zaldiz ibilaldia Anizko inguruetan. **1etan** mus txapelketaren finala. **2,30etan** zikiro-jatea JOXE ANGELek alaiturik. **12etan** Gaixoa ni.

### flash

**Baztanesa Almandozen**

Azkenean, herritarren sinadura eta Ramon Apezetxea eta Mª Luisa Pierolak Iruñean emandako pausuei esker, almandoztarrek lortu dute *Baztanesa* autobusa beti bezala herritik pasatzea. Duela hilabete batzuk karriketan obratan ari zirenez autobusak herritik pasatzeari utzi zion. Gero, nahiz eta lanak akitu, pasatzeko asmorik ez zutela ikustean, herritarren kexa sortu zen, bariantera atera behar baitzuten.

**40 urteren ondotik berriro Zigara**

Juan Martin Huarte zigatarra berriro ere bere sorterrira itzuli da, 40 urte Tulen (Estatu Batuak) eman ondotik. Herritarrek ederki hartu zuten, beretaz xaharrenak bakarrik oroitu arren.

**Moto istripua**

Elizondo-Dantxarinea errepidean moto istripua izan zen irailaren 16an. Zugarramurdiko Jon gaztea su-hiltzaileen anbulantzian eraman behar izan zuten.


Okindegia Jatetxea

Uxoa

Polig. Ind. Ordoki Tfn.: (948) 45 34 03 31713 ARIZKUN



Okindegian
- Ogi artisaua, egunekoa eta txapata

Jatetxean
- Menua eta karta (asteburuetan)
- Espezialitate parrilan erretako jakietan

Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labean errea. Goxo-goxoa!

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

Udazkenerako moda-modazko antelinaz egindako arropak: Galtzak, berokiak, txaketak...

Eskulangintza materiala

Tela berriak

## ZUGARRAMURDI-URDAZUBI

# Lurdesera gateko bidaia antolatu da igande honetarako

### Ortzirala baino lehen eman beharko da izena

MARGARI ETA KORO

Urdazubi eta Zugarramurdiko parrokietatik Lurdesera gateko bidaia antolatu da. Bidaia igande honetan, irailak 28, eginen da, bainan izena emateko ortzirala da azkeneko eguna, apezaren etxera deituz (599085 telefonoa) edo Diharzeko autobusetara zuzenean (07-335-59299171 telefonoa).



Zugarramurdiko lezetako sarreran haur talde bat aurtengo udan

**Udarekin batera turistak gan dira...**

Finitu zaigu uda eta horrekin herriaren giroa ere aldatzen ari da, karrikan kotxe eta jende gutixeago ikusten baita. Eta turismoa aipatuz, uda ona izan dela erran behar da, dirudienez Nafarroan orokorki guttitu egin omen baita turisten etorrera. Zerbaitetan bai sumatu dela aldaketa eta hori Frantziakotik jende gehiago etorri dela izan da, Espainiatik guttiago etorri diren horiek konpentsatuz.

Orain udazkeneko sasoinean mendira eta zerura begiratzen hasi da jendea: usoak oraindik ez omen dire ageri, bainan bai ordea onddo pixar batzuk azkeneko ilargi saniarekin. Gaztainak berriz aintzinatu dira eta gehienek dastatuak ditugu jadanik.

Bertzalde, ehizia ere hor dugu: ortzegunero basurde ehiztariek egiten dute beren itzulia, nahiz eta momentuan hutsik itzuli diren aldiero.

SOULE
Hileta artea
✆ 453444 • 908. 779903
ARIZKUN

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA
• Miopia
• Bista alfertua
• Estrabismoa
• Begi lausoak-kataratak
GIHARRE ARAZOAK
• Bixkortzea
• Artritia, erreuma
• Artrosia, Lunbalgia
• Bihurdurak, etab...
Zentru ez sanitarioa
KONTSULTA ORDUTEGIA
Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 2-7etara. Ordua eskatu
MAGNETISTA NATUROPATA
✆ (943) 62 30 55
San Marcial, 7-4 IRUN
ONDORIOETATIK INDARTZEKO
• Diabetia
• Asma
• Larru azaleko alergia
• Buruko mina
• Zizareak
• Oinen izerdia
• Prostata, etab...



BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia
• Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
• Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
• Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak
121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

Baztanen...
ESTHER
LOREDENDA • GARDEN CENTER
ESTHER FUNERARIA
Hilkutxak • Hilautoak • Eskelak • Dokumentazioak
Beztitzeak, etab...
24 orduko zerbitzua
Eta Iruñean...
IRACHE TANATORIOA
Iratxe Monastegia, 60
Tfnoa: 26 09 54
Aritzondo, Bergara auzoa • Tfnoa: 58 09 71 • ARIZKUN
Errepide Nagusia • Tfnoa: 592200 • NARBARTE
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 580668 • ELIZONDO

## SARA

# Buruilaren 6an iragandako Goitibehera txapelketan 27 bikote aritu ziren

Bakar bat ere ez zen Sara edo Nafarroakoa

MIXEL ETA JACQUELINE

Buruilaren 6an iragan zen eta San Inazioko lepotik abiatuz Sarako plazarat heltzea zuten aurtengoan. Amaiera gogorragoa zen Trinketeko aldapa gainditu behar zelakotz. Hala ere 27 bikotek parte hartu zuten eta horietatik 11 Azkaindarrak ziren. Aldiz, eta zoritxarrez, Saratik eta Nafarroatik nehor ez zen azaldu eta antolatzaileek agiantzen dute datorren urterako oldar berezi bat eskualde huntarik. Lasterketa hau Ligako zazpigarrena zen eta orotara bederatzi aitadez osatua da. Azkeneko biak iragan beharrak dira Galdakaon irailaren 20an eta Iurretan urriaren 5ean.

Dena den, Sarako emaitzak hauexek dira:

**Lehen:** Anabitarte eta Soroa Lasartekoak (orain arte ligako buru direnak).

**Bigarren:** Soroa aita-semeak (iazko txapeldunak).

**Hirugarren:** Vicenty eta Francisco azkaindarrak.



Bikote bat Trinketeko patarra ezin ateraz

### Berriak eskola sartzea dela eta

Aurten ere AEKk gaztetxearen bidez gau-eskola eginen du helduentzat. Izena eman daitezke buruilaren 22a eta 27a artean gaztetxean, goizeko 10ak eta eguerdi artean edo arratsetan deituz zenbaki huntarat: 05 59 54 26 20. Anima zaitezte!

### Xabaloko errekan erleak izanen dira

Sarako Kontseiluak eta oihantzainak onartu dute Jose Arregui saratar izanak Xabaloko errekan jar ditzan erleak.

Baimen hau urte batekoa da eta berritua izan daiteke. Jakina erleka hogoi liberatako sari bat beharko duela ordaindu herriari urtero eta hori 1997ko uztailaren 1etik goiti.






© 631076 • BERA

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA
Michel eta Kattin Guerendiain

Tfnoa: 59 54 25 19 • SARA

ARROPA DENDA
MERCERIA FANTXIKE
JAIME URRUTIA, 24
TFNO. 580312
ELIZONDO

CERVANTES
HELVETIA SEGUROS
Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

BODEGAS ERRASTI, S.L.
Bodegas Gailur
ARABAR ERRIOXAKO ARDOAK
GETARIAKO TXAKOLINA
Zonarako banatzailea
TXOPORRO Ardoak
M. Azpilkueta, 6 • ELIZONDO
✆ 58 02 78


• Hileta artea
MARMOLES GRANITOS
AMEZTI, S.A.L.
KALITATEA eta ESPERIENTZIA
• Marmol eta granitoak
• Sukalde eta bainurako entzimerak
• Lanak orokorrean
Zaldubia Poligonoa • IRURITA • Tel. eta faxa: 45 22 00

## EZKONTZAK

**Jose Joaquin Etxeberria Telletxea** eta **Ana Belen Goñi Elizaintzin**, Igantzi eta Elizondokoa, abuztuaren 30ean.
**Jose Mª Lana Moreno** eta **Mª Begoña Alberro Etxandi**, Doneztebe eta Gartzaingoa, irailaren 6an.
**Juan Jose Urrutia Sanzberro** eta **Idoia Goienetxe Irigoien**, Elizondokoak, irailaren 13an.
**François Pouyet** eta **Laurence Peltier**, Sarakoa eta Azkainbgoa, agorrilaren 23an.
**Ignace Otamendi eta Beatrice Casteigts**, Ainhoakoa eta Sarakoa, buruilaren 6an.
**Pedro Maria Urrutia Sarratea** eta **Rakel Iturralde Oskariz**, Iruña eta Berakoa, irailaren 6an.
**Juan Angel Sarratea Gamio** eta **Mª Pilar Goizueta Apeztegia**, Zozaia eta Iturengoa, irailaren 12an.
**Manuel Santesteban Loiarte** eta **Karmele Bendoiro Ormaetxea**, Zubietakoak, abuztuaren 23an.

**ZORIONAK!**
**Gure oparia ematean lehenak izan nahi dugu**



Haurttoa jaio izan eta berehala etor zaitez Iruñeko Kutxara. Saskitxo-aldatzaile hau, haur-garbiketarako produktuez betea, emango dizugu.

**Ez ahantzi familiaren liburuxka!**

IRUÑEKO KUTXA 125

## JAIOTZAK

**Nerea Begino Mendiburu**, Igantzikoa, irailaren 2an.
**Maite Odriozola Mujika**, Lesakakoa, irailaren 1ean.
**Imanol Iturria Altzuguren**, Lesakakoa, abuztuaren 26an.
**Maialen Lopez Tapia**, Lesakakoa, irailaren 14an.
**Nekane Astiz Goñi**, Lekarozkoa, irailaren 3an.
**Garbiñe Agerre Etxalar**, Almandozkoa, irailaren 8an.
**Irune Urrutia Briongos**, Doneztebekoa, irailaren 4an.
**Imanol Riobo**, Sarakoa, buruilaren 8an.
**Andoni Sistiague**, Sarakoa, agorrilaren 29an.
**Elodie Gorosurreta**, Sarakoa, uztailaren 18an.
**Goizeder Mindegia Benito**, Eratsungoa, abuztuaren 21ean.
**Mikel Eraso Belaunzaran**, Aresokoa, irailaren 11n.
**Irati Agesta Latasa**, Sunbillakoa, abuztuaren 18an.
**Ane Latasa Berasategi**, Sunbillakoa, uztailaren 21ean.

## HERIOTZAK

**Josefa Antonioa Etxenike Iturriria**, Iruritakoa, irailaren 6an, 86 urte.
**Juana Gaztañaga Aranburu**, Leitzakoa, irailaren 7an, 67 urte.
**Felipe Sanchez Marin**, Elizondon, irailaren 14an, 96 urte.
**Juan Mª Angel Odriozola Arribillaga**, Leitzakoa, irailaren 11n, 41 urte.
**Gregorio Mitxelena Sein**, Arantzakoa, irailaren 12an, 67 urte.
**Pantxo Daguerre**, Sarakoa, uztailaren 30ean, 68 urte.
**Kattalin Barnetxe**, Sarakoa, agorrilaren 13an, 86 urte.
**Ttotte Salaberri**, Sarakoa, buruilaren 7an, 47 urte.
**Malou Vanderpol-Bur**, Sarakoa, buruilaren 4ean, 67 urtetan.
**Mª Josefa Goia Iraola**, Berakoa, irailaren 5ean, 82 urte.
**Catalina Lazkano Arrieta**, irailaren 10ean, 70 urte.
**Juanita Pikabea Ducaz**, Arantzakoa, irailaren 5ean, 94 urte.
**Francisca Matxikote Perugorria**, Igantzikoa, irailaren 7an.
**Mª Dolores Argarate Mihura**, Igantzikoa, irailaren 16an, 52 urte.







**Lanerako eta denbora librerako**

**SAMPI ARAGON**

Leitzako errepidea
✆ 450354 / 450759
**DONEZTEBE**

DATUAK.........

❖ *Jose Miguel Barberena, Xumuxu, Erratzuko Sumusua etxekoa da sortzez, eta goitizena ere hortik heldu zaio, bistan denez.*

❖ *Larunbat honetan Benito Lertxundik joko du Elizondoko frontoian, eta hainbertzetan bezala, Xabier Ballarena eta biek ibili dira antolatze lanetan.*

❖ *Izan ere, denbora aunitz joan da duela 12 urte Xorroxin Kontzertuak ekimenarekin hasi zirenetik. «Lehenbiziko kontzertuan La Polla, Barricada, El Grupo Que Toca en Mugaire y Llueve eta Arantzako Ekaitza taldeek jo zuten».*

TESTUA ETA ARGAZKIA:
**ASIER GOGORZA**

**Jose Miguel BARBERENA "Xumuxu"** *Xorroxin Kontzertuak*

# "Arriskutsua da kontzertuak egitea, jendea ostatuetan gelditzen baita"

**BENITOREN LARUNBATEKO KONTZERTUAZ APARTE, ZER DUZUE ORAIN ESKUARTEAN?**
Momentuz deus ere ez. Igual gauza ttikiren bat Erratzuko Elkartean, ez dakigu, baina pentsatzen dut negu aldera hasiko garela datorren urteko plangintza prestatzen.

**NOLA SORTU ZEN XORROXIN KONTZERTUAK EKIMENA?**
Aspalditik zegoen idea hau, zerbait paraleloa egitea Xorroxinez aparte. Orain dela 12 urte antolatu genuen lehenbiziko kontzertua; *Barricada, La Polla, El Grupo que Toca en Mugaire y Llueve* eta Arantzako *Ekaitza*k jo zuten.

**ZEIN DIRA, HORIETAZ APARTE, EKARRI DITUZUEN BERTZE TALDE HAUNDIAK?**
Gehienak, edo denak. Lehendabiziko urtean izan ziren hiru aste segido, eta *Itoitz, Hertzainak*, eta *Zarama* ere pastu ziren bertzeen artean. Geroago *Kortatu, Delirium Tremens, M-ak, Julio Kageta, EH Sukarra, El Inquilino Comunista*... eta azken urteetan *PiLT*, eta *La Polla* (hau hiru-lau aldiz pastu da).

**ARAZORIK IZAN DUZUE TALDEREN BATEKIN?**
Bai, *Potato*rekin, adibidez, izan genuen holako istorio arraroren bat. Ez zen garbi-garbi diru arazoa baino bazuen hor zerbaitere ikusteko. Baina alde horretatik talde gehienak ongi portatu dira, batez ere *La Polla*.



Xumuxu (ezkerrean) eta Xabierrek urte aunitz eramaki dute elkarlanean.

**ZEIN IZAN DA URTEOTAKO KONTZERTURIK POLITENA ZURETAKO?**
Nik uste dut izango zela *El Inquilino Comunista, Gutariko Bat* eta *Noise Hole* taldeena. Jende gutti ginauden baino neretako pollitena izan zen, soinuaren aldetik ere ona, eta taldeak primerakoak.

**ZERGATIK EGITEN DIRA KONTZERTU GEHIENAK ERRATZUN ETA EZ, ADIBIDEZ, ELIZONDON?**
Gauza da gu biek Erratzukoak garela, eta garbi dugu zerbait egitekotan hemen egin behar dugula, zeren bertze herritako jende gehiena ez da batere mugitzen. Elizondon egitea, bertzalde, arriskutsua izaten ahal da, Baztango jendea, azken batean, ostatuetan gelditzen baita. Erratzun ere holako zerbait pasten da, nik azken kontzertuan ikusi nuen jendea karriketan bueltaka, barnera sartu ez zena, eta hori fuertea da.

**NOIZKO «BELARRIAK GOXATZEN III»A?**
Bueno! Horrek beldurra ematen du, dirua gosta delako. Azkeneko bi jaialdietan diskoan gastatutakoa galdu dugu. Nik gauza pixkot frenatuko nuke, urte pare batez *stop*, baina Xabierrek baietz erraten du, eta igual eginen da. Konpaktarena batzuei gustatzen zaie, baina gehie-

*“Erratzun ere horrelako zerbait pasten da, nik azkeneko kontzertuan ikusi nuen jendea karrikatan bueltaka, barnera sartu ez zena, eta hori fuertea da.”*



Argazkian kadete mailako hiru taldeak eta infantilak ageri dira. Seniorrekin batera 76 neska aritu dira eskubaloian Baztanen.

# Eskubaloia emakumeen kirola da Baztanaldean

- Bortz talde atera zituen joan den denboraldian
- Hirutan hogeita hamasei neska aritu ziren

1996-97 denboraldian emakumeez osatutako bortz eskubaloi talde plazaratu zituen Baztango Kirol Taldeak, Nafarroako txapelketa ezberdinetan.

### Helduak bigarren liga eta kopan, eta kiroltasunaren saria irabazi zuten

Bigarren mailan senior taldea (S) ligan azpitxapeldun suertatu zen, Beti Onak taldearen ondotik, elkarren kontra bina partidu galdu ondotik, azkenean beraiek gol gehiago bere alde lortu baitzuten. Kopan ere bigarren postua lortu zuten eta kiroltasunaren saria eskuratu zuten.

Kadete mailan hiru talde kantxaratu zituen Baztango Kirol Taldeak: bat bigarren urtekoa (15 urtekoak –Kn–) eta bi 14 urtekoak (BKT xuriak –Bx– eta BKT gorriak –Bg–).

### Hiru talde kadete mailan

Lehenbiziko taldeak laugarren postua lortu zuen ligan eta kopan txapeldunak suertatu ziren. Valentzian jokatutako txapelketa batean ere hirugarren postua erdietsi zuten.

BKT gorriak ligan hamalaugarren postuan gelditu ziren eta BKT xuriak, berriz, hamabigarrenean. Kopan, elkarren arteko kanporaketa suertatu zitzaien eta xuriek juxtu-juxtuan irabazi zuten, gero final laurdenetara ailegatuz. Etorkizun haundiko jokalariak badira talde hauetan, Joxe Iturzaeta entrenatzailearen ustez.

### Esperientzia berria infantilentzat

Infantil mailako neskendako (I) esperientzi berria zen eskubaloia eta azkenean hamargarren postua lortu zuten, joku maila itxaropentsua azalduz azkeneko partiduetan.

Delegatu lanetan Oskar Frias eta Mariano Eseberri aritu ziren eta entrenatzaileak Joxe Iturzaeta eta Enrike Petrirena izan dira.

## Banan Bana

| | | | |
|---|---|---|---|
| Mª Loren Eugi | S | Iratxe Garmendia | Kg |
| Ana Villoria | S | Enara Mitxeltorena | Kg |
| Kristina Urtasun | S | Sara Inda | Kg |
| Begoña Argain | S | Amaia Ortega | Kg |
| Idoia Argain | S | Amaia Olondriz | Kg |
| Ana Franzesena | S | Nerea Meoki | Kg |
| Rosa Baldanta | S | Maria Santesteban | Kg |
| Karmele Arriada | S | Adriana Barberena | Kg |
| Ana Iturralde | S | Leire Arnal | Kg |
| Gurutze Aizpuru | S | Miren Garmendia | Kg |
| Ainhoa Goñi | S | Erin Goñi | Kg |
| Mª Jose Mena | S | Aintzane Egui | Kg |
| Belen Urrutia | S | Itziar Irigoien | Kg |
| Maria Inbuluzketa | S | Maite Obregozo | Kg |
| Itziar Plaza | Kn | Kristina Satrustegi | I |
| Avelis Perotxena | Kn | Amaia Irigoien | I |
| Itziar Rementegi | Kn | Enea Arretxea | I |
| Itziar Erasun | Kn | Edurne Inbuluzketa | I |
| Miren Barazabal | Kn | Nerea Lizasoain | I |
| Lorea Azkarate | Kn | Karmele Gomez | I |
| Isa Irigoien | Kn | Harritxu Arrijuria | I |
| Mª Jose Aleman | Kn | Lorea Arburua | I |
| Amaia Otondo | Kn | Iratxe Huarte | I |
| Izaskun Zabaleta | Kn | Aintzane Ramos | I |
| Sonia Bidart | Kn | Aintzane Mariezkurrena | I |
| Belen Goñi | Kn | Izaskun Danboriena | I |
| Maddi Arrijuria | Kn | Ana Irungarai | I |
| Izaskun Irungarai | Kn | Laura Salaburu | I |
| Elisa Perotxena | Kx | Itxaso Etxart | I |
| Begoña Iribarren | Kx | Izaskun Arregi | I |
| Laura Gallego | Kx | Jaione Larre | I |
| Maria Azkarraga | Kx | Idoia Sobrino | I |
| Nerea Etxenike | Kx | Josune Bertiz | I |
| Isabel Barberena | Kx | Eli Lameirinhas | I |
| Begoña Goienetxe | Kx | Edurne San Jose | I |
| Ana Biartola | Kx | | |
| Mª Jose Salaburu | Kx | | |
| Maite Galain | Kx | | |
| Amaia Iñarrea | Kx | | |
| Maite Urrutia | Kx | | |
| Saioa Claveria | Kx | | |

**Delegatuak:** Oskar Frias eta Mariano Eseberri.
**Entrenatzaileak:** Joxe Iturzaeta eta Enrike Petrirena.

# Arraiozko taldea nagusitu da laxoako kopa txapelketan

- Finalean 9-4 irabazi zion Doneztebeko taldeari
- Arraiozko plazan jokatu zen, herriko besten barrenean

Arraiozko taldea nagusitu da aurtengoan laxoako kopa txapelketan. Irailaren 7an Arraiozko plazan jokatu zen finalean, 9-4 irabazi zieten orain arte ia irabaztezinak ziruditen doneztebarrei. Baztandarrek, herriko bestek ematen duten animoa, alde batetik, eta Pello Iribarren, Doneztebeko sakatzailearen lesioa, bertzetik, probextu zituzten, beraien lehen txapel haundia eskuratzeko. Doneztebarrak, halere, 2-0 aitzindu ziren. Gero, arraioztarek bortz joku segidan egin zituzten eta ustegabekoa eman zuen, garaipena lortuz.



**Finaleko protagonistak eta Laxoa elkarteko kideak, Arraiozko plazan**
Argazkia: Ondikol

Arraiozko taldean Antton Saldias (sakalaria), Luis Mortalena (numeroa) eta Jon Gamio eta Xabier Karrikaburu laurdenak aritu ziren.

Doneztebeko taldean, berriz, Pello Iribarren (sakalaria), Luis Miguel Apezetxea (numeroa) eta Felipe Ganboa eta Jose Mª Anzizar laurdenekin aritu zen.

### GAZTEEN FINALA

Bertzalde, igande honetan jokatzekoa zen Iruritako plazan, gazteen liga txapelketako finala, Iruri̇ta eta Oitzen artean.

Tiburtzio Arraztoa, Laxoa elkarteko kideak, aurtengo denboraldiko balantze ona egin du eta Arraiozek txapela irabaztea ez du sorpresatzat hartu: *«Iaz finalista izan zen, ligan ere ongi ibiltzen da eta noizbait txapelaren bat irabaztea merezia zuen»*. Aurten, Nazioarteko Pilota Topaketa egiterik izan ez bada ere, datorren udaberrian antolatzea espero du.



Argazkia: Legarra

## Beti Gazteko bigarren taldea nagusitu zen Jon Irazokiren omenezko III. futbol txapelketan

Irailaren 6an jokatu zen Berako Matzada zelaian Jon Irazoki zenaren omenezko futbol txapelketa. Hirugarren urtez antolatu du Memoriala Gure Txokoa elkarteak, trafiko istripuan hildako jokalari gaztea gogoratu nahian. Herriko Gure Txokoa taldearekin batera, Lesakako Beti Gazte elkarteko bigarren taldea eta Hondarribiako bigarren taldea aritu ziren. Lehen partiduan, beratarrek 1-0 irabazi zieten hondarrabitarrei. Bigarrenean lesakarrak 3-0 nagusitu ziren Hondarribiaren aurka. Azken 45 minututan, Beti Gazte eta Gure Txokoak jokatu zuten, sari nagusiaren bila. Azkenean, ordea, hasierako emaitzarekin bukatu zuten (0-0) eta, honenbertzez, txapela lesakarrentzat izan zen, golen aldeari esker.

Hainbat jende bildu zen futbol zelaian, euren taldeak animatu eta Irazoki gogoratzera.

## BOTE pronton



**Luismari Belarra** aizkolari doneztebarrak eskuratu du Euskal Herriko 3. mailako aizkolarien txapela. Luismari aisa nagusitu zen Eskuernagako finalean (1'10" atera zizkion bigarrenari) eta datorren urtean bigarren mailan aritzeko txartela eskuratu zuen.

**Iñaki Lizaso** erremontelari doneztebarra bi hilabetez frontoietatik kanpo izanen da. Lesio baten ondorioz, irailaren 10ean operatu zuten 24 urteko atzelaria.

**Unai Barazabalek** bi laisterketa gehiago ezarri ditu bere palmaresean. Batetik, Lukingo Udalaren 24. sarian nagusitu zen azpilkuetarra, eta bertzetik irailaren 5ean Iruñean korritu zen Izarren Trofeoan ere lehena izan zen, proba horretako errekorra hautsiz, gainera. Bortz dira, honenbertzez, Sigmakoak aurten lortu dituen garaipenak.

**Rafa Maritxalar** korrikalari lesakarra laugarren sartu zen Iruñeko Milian. Irabazlea Fermin Cacho atleta famatua izan zen.

# AGENDA PRAKTIKOA

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## BESTAK

**IGANTZI**

**▶ Irailaren 26tik 30era** Xehetasunak 14. orrialdean.

**ANIZ**

**▶ Urriaren 5etik 8ra** Xehetasunak 23. orrialdean.

**URROZ**

**▶ Irailaren 26tik 30era** Xehetasunak 19. orrialdean.

## ERAKUSKETAK

**ELIZONDO**

**▶ Irailaren 24tik urriaren 8rarte** Elisa Muñoz margolariaren lanak ikusgai Arizkunenea Kultur Etxean.

## KONTZERTUAK

**ELIZONDO**

**▶ Irailaren 27an** Benito LERTXUNDI eta Magali ZUBILLAGA kantariek kontzertua emanen dute frontoian, arratseko 10etatik aitzin.

## IKASTAROAK

**BAZTAN**

**▶ Altzari zaharren konponketa** eta marrazketa artistikoko ikastaroak prestatu ditu Baztango Udalak Nafarroako Emakumearen Institutuarekin elkarlanean. Klaseak emakume eta haurrei begira prestatu dituzte, eta apuntatu nahi duenak laister ka joan beharko du Baztango Udalera, epea irailaren 26ean akitzen baita.

## BASERRIA



### ❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 5.600 pta.
- **Zerri gizena** (95-100): 230 pta/kilo
- **Zerramak:** 150 pta./kilo bizirik.



### ❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pta/kg. Kanal

| | |
|---|---|
| Extra | 530 |
| 1.koa | 510 |
| 2.koa | 485 |

- **Urruxak:** Pta/kg. Kanal

| | |
|---|---|
| Extra | 550 |
| 1.koa | 520 |
| 2.koa | 480 |

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.

- **Aretze ttikiak**

(15 egun ingurukoak):

**Nabarrak:** urruxak 16.000 eta idixkoak 23.000 Pta.

**Mestizoak:** urruxak 23.000 eta idixkoak 35.000 Pta.

**Behi zaharrak:**

Behi nabar gizena: 360 Pta./ Kg. Kanal. Behi gorri ona: 400 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: **EHNE**



**Benito Lertxundirekin batera Magali Zubillaga Urepeleko kantaria izanen da larunbatean Elizondon.**

## HAMABOSTALDIKO GOMENDIOA

### *Benito Lertxundi*

Larunbat honetan Elizondoko frontoia bete eginen dute, seguruenik ere, Benitoren abesti goxoak eta Magali Zubillaga urepeldarraren kantu zaharrak aditzera joanen direnek. Horrexegatik, bada, sarrerak aldez aurretik erosi eta zure txokoa lehenbailehen segurtatzea gomendatzen dizugu.

Ohikoena ez bada ere, Iruñeko Kutxako edozein bulegotan salduko dizute sarrera, 1.000 pezetaren truke (takillan 1.200). Erratzuko Zubipunta ostatuan eta Xorroxin Irratiko 581226 telefonora deituta ere eskura dezakezu, bertzenaz. Ah! eta hala nahi izanez gero internetez ere bai, ixa_ka@eusnet.org *Xorroxin Kontzertuak*-en helbide elektronikoaren bidez (harrapazan/k hori!).

Kontuak kontu, kantaldia arratseko 10etan hasiko dela aipatzea bertzerik ez zaigu gelditzen. Han egonen zaretenei ongi pasa... eta bertze gainerakoei, asteburua ahalik eta hobekien probexten saiatu!

## ☞ LIBURUAK




«Ipuin gogoangarriak»
Antologia
EREIN

XIX. eta XX. mendeetako 13 egilek osatzen dute ipuin bilduma hau, eta mende honetakoak direnak, gainera, zenduak daude dagoenekoz. XIX. nahiz XX. mendeetako ipuinaren generoan orain arte, eta baita gaur egun ere, maisu izan diren egile haundiak bildu dira. Hamabi ipuinlarik osatzen dute antologia: Charles Dickens, Guy de Maupassant, Villiers de L'Isle-Adam, Marcel Schwob, Anton Txekhov, Jack London, James Joyce, Franz Kafka, Jose Luis Borges, Julio Cortázar, Italo Calvino, Isaac Bashevis Singer eta Evelyn Waugh. Bestetik, Juan Garzia, Juan Mari Mendizabal eta Juan Kruz Igerabide dira, besteen artean, idazle haundi hoien ipuinak euskarara itzuli dituztenak.

Iñaki Aldekoa oñatiarrak aukeratu ditu, bestalde, antologia honetan egotea merezi zutenak.

JAKIN BEHARREKOAK

# Eskolara itzultzearen ondorioak



Lagunekin berriro elkartzea pozgarria da ikasle gehienentzat.

Oporretako erritmoarekin hautsi eta normaltasunera itzultzearekin batera, nekea, aspertu itxura, antsietatea eta kasu larrienetan depresioa ere sor daiteke haurrengan, helduengan sortzen den bezal-bezalaxe.

Ikasketa garaia hasterakoan egoera berriak bizituko ditu haurrak, hala nola, *«ordutegi finkoak segitu beharra, irakasle edota ikaskide aldaketak batzuetan...»*, eta horiek dira aipatutako sintomak agertzearen arrazoia, José Antonio Ríos, Madrileko Unibertsitateko Psikologia irakaslea eta Familia Terapeutaren ustez.

*«Aurpegi ahul, aspertu eta nekatuak ikusi orduko guraso eta irakasleek ohartu beharko lukete, mozorro hoien atzean haur-depresioak egon daitezkeelako, zenbaitzutan».*

## "Normalitatearen sindromea"

Normalena, halere, aste pare baten buruan betiko erritmoa berreskuratu eta normaltasunaren betebeharretara ongi egokitzea izaten ohi da, eskola garaiko ordutegiek agintzen duten legera bihurtuz. Erritmo hori berriz hausten denean, eguberri eta aste santuko oporretan adibidez, baliteke sintoma hoiek agertzea, baino ondorioak ttikiagoak izanen dira seguraski, opor garai hori ere llaburragoa den neurrian.

*«Aurpegi ahul, aspertu eta nekatuak ikusi orduko guraso eta irakasleek ohartu beharko lukete, mozorro hoien atzean haur-depresioak egon daitezkeelakoz, zenbaitzutan».*

Eskolan edota beren ikasketetan integratzeko zailtasunak dituzten haurrak dira, Ríos-en arabera, *«normalitatearen sindromea»* errazago pairatuko dutenak. *«Uda ondoko erronka berriei aurre egiterakoan, fobia ttikiak jasan ditzakete ikasketa arazoak dituzten eskola-umeek»* dio.

Egoera hauen aurrean, haurrei astia ematea gomendatzen zaie guraso nahiz irakasleei, betiko erritmora itzuli artean, bederen.

Halere, kurtso hasiera haur gehienentzat positiboa izaten da, lagunekin berriro elkartzen direlakoz.

EGIN-etik moldatua

## DISKAK



«HEMEN»
Xabier MONTOIA
Esan Ozenki

Udazkenean argia ikusiko duten disko ugarien artean, Xabier Montoiak Esan Ozenkirekin uda aitzinetik grabatu zuena dakarkizuegu.

Lehenbiziko diskoak «Beti oporretan» erraten baldin bazuen, bi urte pasatuta dagoenekoz «Hemen» direla garbi utzi nahi izan dute Montoia eta bere taldeko beratarrek. Joseba Irazoki (gitarrak) eta Telletxea anaiek (bateria eta bajua) bizitasun dexente eman diote disko berriari, eta baita urte osoan zehar eman dituzten kontzertuei ere.

Denen artean lehen diskoaren pop doinuak atzenduaraziko dituen lana osatu dute, gitarra soinuak hartu duen indarragatik, batez ere. Ordubete baino gehixeago irauten du, hamazazpi abesti sartu dituzte eta.

# AGENDA EGUNEZ EGUN

### ANTZERKIA

**ETXALAR**

**Urriaren 4an** arratsaldeko 8etan, Kollins Clown taldearen eskutik, Bikingoak izeneko antzerkia ikusi ahal izanen da Herriko Plazan. Haur, gazte eta adinekoendako.

### MOTO IGOERA

**LEITZA**

**Irailaren 28an**, igandea, arratsaldeko 4etan hasita Leitzako igoera ospatuko da, Iruñeko Moto Klub-Moto Krak elkarteak antolatuta.

### MENDI IRTEERAK

**ELIZONDO**

**Baztango Mendigoizaleek** Orhi menditik Belaguako aterperainoko ibilaldia eginen dute asteburu honetan. Autobusa irailaren 28an goizeko seiak aldera abiatuko da, eta Elkartetxean eman behar da izena. Telefonoa: 452345.

### GUARDIAKO BOTIKAK

061 Tfnora. deitu behar da

**Irailaren 22tik 28ra**
Etxalar, Narbarte, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizuetan.

**Irailaren 29tik urriaren 5era**
Arantza, Doneztebe, Elizondo (Iturralde), Goizueta eta Leitzan.

**Urriaren 6tik 12ra**
Igantzi, Sunbilla, Elizondo (Lezaun), Goizueta.

**ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

**GARAJEAK / LOKALAK**
107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

**LURRAK / ORUBEAK**
112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

**LANA**
301. Eskariak
302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
401. Eskaintzak
402. Akademiak

**MOTORRA**
501. Salerosketak
502. Tailerrak

**ANIMALIAK**
601. Salerosketak
602. Emateko
603. Klinikak

**DENETARIK**
701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**

**zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...**

*Hegoaldetik deitzeko 948-*
*Iparraldetik 00-34-48*

**631188**

**...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!**

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa**k ez du bere gain hartzen dohainik argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

## ETXEBIZITZAK

### 101 SALDU

**BERA.** Pisua salgai. Sukaldea, gela bat eta bi bainu mobleztatuak, bertzeak ez. Ganbararekin. ☎ 630395.

**BERA.** Pisu duplexa salgai, hiru logela, sukalde berria, jantokia, egongela, bainua, aseoa, atiko ederra, garaje eta baratzea. 80m² inguru. ☎ 630353.

**BERA.** Pisua salgai. Bainua eta sukalde mobleztatua. Eguzkitsua. ☎ 630508.

**BERA.** Pisua salgai, sukaldea moldatua, jangela haundia, 3 logela, bainua eta aseoa. Dena kanpoaldera begira, balkoi ederrekin. ☎ 631305.

**BERA.** Pisu bajua salgai. Eguzkitsua eta herri erdian. 70m². ☎ 989-801323.

**OITZ.** Txaleta salgai, bizitzen jartzeko prest dagoena, bere lur eremuarrekin. ☎ 630048.

**IGANTZI.** Pisua salgai. ☎ 637818.

## ETXEBIZITZAK

### 102 EROSI

**BAZTAN-BIDASOAn,** Leitzaldean edo Saraldean etxe bat edo lur-eremu bat erosiko nuke, herrietatik hurbil, oinez joateko moduan. ☎ 943-700477 (Astegunez gauetan, eta asteburutan. Mª Carmen).

**BAZTAN-BIDASOAn** Borda erosiko nuke. ☎ 943-551054.

**Borda** bat erosi nahi dut, edozein egoeratan eta edozein herritan. ☎ 451841.

## ETXEBIZITZAK

### 103 ERRENTAN EMAN

**ATARRABIA.** Pisua errentan emanen nuke. Mobleztatua. Merke. ☎ 890366.

**ETXALEKU.** Herriko Ostatua (Imotz) eskualdatu nahi da. ☎ 503013.

## ETXEBIZITZAK

### 104 ERRENTAN HARTU

**LESAKA edo ARANTZAn** etxe bat errentan hartuko nuke. Merkea. ☎ 909-477277 (Imanol).

## ETXEBIZITZAK

### 105 ETXE KONPARTITUAK

**Neska bat** behar da Txantrea auzoan pisua osatzeko, irailaren 15etik aurrera. ☎ 128737.

**Leioan** pisua konpartitzeko pertsona bat behar dugu. ☎ 634040 Nerea.

**BURLATA.** Pisua konpartitzeko pertsona bat behar dugu. ☎ 581284 (denda orduetan).

**DONOSTIA.** Pertsona bat behar da pisua osatzeko erdi aldean. ☎ 580462.

**BARAÑAIN.** Bi lagun behar dira pisua osatzeko. ☎ 510204-610791-610806.

**IRUÑA.** Lagun bat behar dugu pisua osatzeko Bergamin kalean (Plaza de la Cruz ondoan. ☎ 450314 (Potto).

## GARAJEAK/LOKALAK

### 107 SALDU

**LEITZA.** Bajera salgai, Patxi Arrazola karrikan. ☎ 510348.

**LEITZA.** Janari denda salgai, kooperatiban. Prezio ona. ☎ 510167.

## LURRAK/ORUBEAK

### 112 SALDU

**ARANTZA.** Etxea egiteko lurra salgai (2.000 m²). Kanposantu inguruan. ☎ (07-335) 59510694 Donibane Lohitzun.

**LESAKA.** Nabazko gainian, bide ondoan, lurra salgai, 6.000 m². ☎ 637912.

**BERA.** 8.500 m²ko lur eremua salgai. ☎ 630040.

**BERA.** 5.000 m²ko lur eremua salgai, eraikitzen ari diren bordarekin. Ibardingo bidean. ☎ 630288 (gauez).

## LANA

### 302 ESKAINTZAK

**Emakume batek** lan eginen luke arratsaldetan. ☎ 450923.

**Umeak zaindu** eta etxeko lanak egiten lan eginen nuke. ☎ 631124.

**Hogeitalau urteko** neska bat edozein lanetan aritu ko litzateke asteburuetan. ☎ 631049 (Laura).

**Emakume bat** etxez etxe masajeak emateko prest. Masajista diplomatua. ☎ 451687.

## IRAKASKUNTZA

### 402 AKADEMIAK

**SPARK**
ENGLISH ACADEMY CENTRE
**ZABALKUNTZA**
INGELERAKO AKADEMI BERRIA ELIZONDON
**MAILA GUZTIAK**
HASIERATIK (0 MAILA) HOBEKUNTZARARTE
**ORDUTEGI ZABALA**
GOIZ ETA ARRATSALDEZ
**3 URTETIK HASITA**
...100 URTERARTE
NATIVE CERTIFICATED
*Deitu konpromezurik gabe*
MATRIKULA Irailak 15-30
✆. 58 13 38
**Giltxaurdi, 12 - 3.B ELIZONDO**

## ZERBITZUAK

### 205 ZURGINAK

**Altzarigilea:** Koxe Mari Aranburu. Lehengo moduko zurezko altzariak. Plazaldea etxea. ☎ 05-59-542123 Sara.

**zimeldi**
*Sukalde eta bainurako armarioak*
Zimeldi • ETXALAR
✆ 948-387017

**Juanjo ERRO**
Zurgin lanak orokorrean
Moble zaharrak konpontzen ditugu
• LESAKA •
✆ 989.800249

## MOTORRA

### 501 SALEROSKETAK

**Opel Vectra** 2.0 CD salgai. ☎ 631180 (eguerditan).

**Renault Express** gasolinazkoa salgai. SS-Z matrikula. ☎ 630328 edo 939-608038.

**GANIX Tailerrak**
Iturlandeta, 9 • ✆ 630669 • BERA
IBILGAILUEN MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATEA
**FIAT Zerbitzua**

**MENDAUR MOTOR**
✆ 450333 • DONEZTEBE
**Bigarren eskuko kotxeak:**
• Opel Astra, Corsa Diesel
• Ford Fiesta
• Vitara Diesel.
• Suzukiak: Samurai eta Vitara

**Opel Corsa** salgai, 1.3 S, NA-V. 300.000 pta. ☎ 989-702048 edo 637382.

**Ford Fiesta L.** salgai, NA-J, 100.000 ptatan. ☎ 989-702048 edo 637382.

**Opel Calibra** 95ekoa salgai. ☎ 908-143470.

**VW Golf** salgai. NA-X, 5 ate, zuria, lehen eskukoa, hagitz ongi zaindua, extrekin. ☎ 630044 (arratsetan).

Audi SAMPI ARAGON
Bigarren eskuko autoak, furgonetak eta 4x4ak erosten dira. Gasolina eta diesel.
✆ 45 03 54 • DONEZTEBE

BOAN TAILERRA
CITROEN Banatzailea
AUTO BERRIEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
☎ 63 06 23 • BERA

NISSAN BERABI tailerrak
✆ 631445 • BERA
**Bigarren eskuko kotxeak:**
Peugeot 205 GTX
Land Rover
Kotxe berrietan **ofertak**

**Citroen AX** salgai. NA-AH, 70.000 km eta lau urte. ☎ 630686.

**Honda NSR** salgai. Egoera arras onean. 125.000 pezeta. ☎ 635136 (eguerdi eta gauetan).

**Vespa** xahar bat erosi nahi nuke. Ez ontzat utzi baldin baduzu bakarren bat deitu, eguerdi edo iluntzetan. ☎ 05-59-542123 (Sara).

**Trial motoa** salgai, Cota 310 markakoa eta egoera onean. ☎ 450606 (Joxe, gauetan).

## ANIMALIAK

### 601 SALEROSKETAK

**Ehiza zakurkumeak** salgai, setter arrazakoak. ☎ 627618.

**Kollie** arrazako txakurrak salgai. 5.000 pezetetan bakoitza. Deitu 580813.

**Behor bat,** lanean hezia, salduko nuke. 5 urtekoa. ☎ 630736 (arratsaldetan, Beran).

**Zezen gorria** salgai, hiru urtekoa. ☎ 615093 (eguerdi eta gauetan).

**Haragitarako** aretze eta behiak erosi nahi nituzke. ☎ 450160.

**Etxeko behorra** saldu nahiko nuke, bere kumearekin. ☎ 450160.

**Ahari bat salgai,** muturgorria, 3 urtekoa eta adarduna. ☎ 610638 (Gaueko 10etatik aurrera).

**Ardi txakurkumeak** salgai. ☎ 604624

## ANIMALIAK

### 602 EMATEKO

**Txakurkume arra** oparituko nuke. Ama ardi-zakurra, eta atta seguruenik ere bai. ☎ 387063.




## DENETARIK

### 702 SALEROSKETAK

**Lur Hiztegi** entziklopedikoa, labadora bat eta etxeko musika aparatua salgai. ☎ 909-477277 (Imanol).

**Gimnasia** egiteko bankua salgai, pesarekin. Prezio negoziagarria. ☎ 908-576504.

**Kaja registradora,** prezioak jartzeko makina, euli-hiltzeko elekrikoa, erakustokia eta estanteriak salduko nituzke. ☎ 453110 (Edozein ordutan).

**Josteko makina** elektrikoa salgai. ☎ 450056.

**1/8ko biolontxeloa** salgai. ☎ 249898 Mikel edo Sonia (Eguerdi edo iluntzean).

**Kaldera-kalefaktore** mixtoa salgai (gasolina-egurra). 4.000 kilokaloria. ☎ 580898 (9etatik 2etara eta 4etatik 10etara).

**Motoko** kaskoa, kazadora eta galtzak salgai. Egoera onean. ☎ 631485.

## HARREMANAK

### 801 AGURRAK

**S.O.S.** (mutilentzat bakarrik): Mutil jatorrekin harremanak izan nahi ditugu. 30 urte inguru ditugu. Erantzuna Ttipi-ttaparen bidez. Ushuaia.

**Lesakako Ekaitz-i:** neska baten partez, oso ona zaude.

**Laura Iglesias** beratarrak 15 urte bete ditu irailaren 22an. Zorionak, Narbarte eta Mugaireko lagunak.

**Iruritako** Yolandari: zorionak irailaren 24ean urteak betetzen dituelako. Ea noiz ohartzen zaren zure begi polit horietaz maitemindurik nagoela. Leitzatik.

**Nekane Irigoien Montes** mexikarrak urtea beteko du urriaren 5ean. Zorionak eta muxu haundi eta berezi bat bere Elizondoko amatxiren partez.

**"Nafarroako Txapeldunari":** burua baino gorago igo zaizu txapela. Narbarteko Maite L.ren partez.

ttipi-ttapa
**Inprenta lanak egiten ditugu**

- Kartelak
- Boletoak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean eginen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

✆ **631188**

## GOIZUETA

***Elizako berogailuaren obrarako xehetasunezko estudioaren hasierako onarpena***

Goizuetako Udalbatzak 1997ko irailaren 5ean eginiko bilkuran hasierako onarpena eman zion Iruñako Artzapezpikutzak eta Goizuetako Parrokiak bultzaturiko Asuntzioneko Elizaren Berogailuaren instalakuntzarako obraren Xehetasuneko Estudioari.

Orain, Lurralde Antolaketaren Foru Legearen (10/94 Foru Legea) 119. Artikuluan ezarritako prozedura jarraituz iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean agertzen denetik hamabost lan egunetako epean jendaurreko erakustaldian egongo da, jendeak aztertu ahal izan dezan eta alegazioak aurkeztu ditzan.

*Goizuetan, 1997ko irailaren 15ean*

## IGANTZI

***Oihan enkantea %20ko beherapenarekin***

**Igantziko Udalak**, %20ko beherapenarekin hirugarren enkante publikoa iragartzen du, ondoko oihan probetxamendu hau saltzeko:

**Lote bakarra:** 1.177 haritz amerikano, platano, gaztainondo eta arkazia, Pionborda eta Harrobi izeneko alderdietan, 838 $m^3$ zur egiten dutenak. Hasierako prezioa (%20ko beherapenarekin): 6.193.200 pezeta.

• Enkantean parte hartu ahal izateko Enpresaren Sailkapen Agiria eta Udal Diruzaintzan hasierako prezioaren %5, behin-behineko fidantza gisa, utzi izanaren gordekina aurkeztu behar dira.

• Proposamenak, Udal Idazkaritzan aurkeztuko dira, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu eta biharamunetik kontaturik hamabosgarren laneguneko eguerdiko hamabiak baino lehen. Pleguak hurrengo laneguneko eguerdiko hamabietan irekiko dira.

• Baldintza tekniko eta ekonomi-administratiboen pleguak Udal Idazkaritzan daude interesatuen eskura.

*Igantzin, 1997ko irailaren 5ean*

*Alkatea, Juan Jose Txoperena Matxikote*

# URTEBETETZEAK

**Sail hau debaldekoa da.**
**Norbait zoriondu nahi baldin baduzu, bidali bere argazkia eta datuak helbide honetara**

**ttipi-ttapa**
Urtebetetzeak Sailerako
Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA

*Argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta selloa ere, edo nahiago baduzue pasatu gure bulegotik.*



**Aitor Telletxea Arburua** etxalartarrak 9 urte bete ditu. Zorionak etxekoen partetik.

**Noelia Ariztia Cenoz** doneztebarrak 11 urte beteko ditu irailaren 30ean. Zorionak gurasoen eta Liborioren partez.

**Liborio Ariztia Cenoz** doneztebarrak 13 urte bete ditu irailaren 22an. Zorionak zure gurasoen eta Noeliaren partez.

**Xabier Gamio** gazteluarrak 9 urte bete ditu irailaren 13an. Zorionak zure familiaren partez.

**Julen Latorre Goia** beratarrak irailaren 30ean 6 urte eginen ditu. Zorionak aita, ama eta Asierren partetik.

**Beñat Abuin Yepes**ek irailaren 22an bete du urtea. Zorionak O., J., A., A., eta A.ren partez.

**Korito Iriarte** beratarrak urte bat gehiago betetzen du irailaren 25ean. Zorionak Izeiren partez.

**Leire Mitxelena Gortari** lesakarrak 8 urte bete ditu irailaren 1ean. Zorionak zure familiaren partez.

**Saioa Ordoki Agesta** irundarrak 8 urte bete ditu irailaren 22an. Zorionak eta muxu haundi bat Arantzako familiaren partez.

**Gaizka Otxandorena Bikondoa** elizondarrak 8 urte beteko ditu urriaren 1ean. Zorionak!



**Adur Otxandorena Bikondoa** elizondarrak 7 urte beteko ditu irailaren 26an. Zorionak!

**Estitxu Etxarte Mikelestorena** etxalartarrak irailaren 4ean 17 urte bete ditu. Zorionak Igantziko familia guziaren partez.

**Joseba Bertiz Etxarte** igantziarrak irailaren 11n bete du urtea. Zorionak aita, ama, Nerea eta familiaren partez.

**Beñat Etxekolonea** zubitarrak urtea bete du irailaren 13an. Zorionak atautxi, amatxi, osaba, izeba eta lehengusuen partez.

**Ana Huizi Manterola** goizuetarrak 6 urte bete ditu irailaren 21ean. Zorionak ama, atta, Aitxpea eta familiaren partez.

**Jokin Mariezkurrena Jauregi** ezkurdarrak 5 urte eginen ditu irailaren 28an. Zorionak gurasoen partez eta muxu haundi bat.

**Naiara Aldazabal Zamarraño** beratarrak 11 urte bete ditu irailaren 23an. Zorionak guraso eta anaien partez.

**J. Jabier Iturbide** etxalartarrak urte asko beteko ditu urriaren 5ean. Zorionak zure bihotza zaintzen duen Aingeruaren partez.

**Ane Ballarena Añorga** elizondarrak 3 urte bete ditu irailaren 19an. Zorionak bere familia osoaren partez.

**Nahia Irigoien Perez** etxalartarrak 5 urte beteko ditu buruilaren 28an. Muxu haundi bat familiaren partez.



**Ibai Alcalde Etxepare** lesakarrak 10 urte beteko ditu urriaren 1ean. Zorionak familiaren partetik.

**Ana Irigoien Bikondoa** ituendarrak 8 urte betetzen ditu irailaren 25ean. Aunitz urtez bere gurasoen partez.

**Elena Irigoien Bikondoa** ituendarrak 8 urte betetzen ditu irailaren 25ean. Aunitz urtez bere gurasoen partez.

**Idoia Basalo Medranok** irailaren 18an bete ditu ? urte. Zorionak.

**Sara Telletxea Igoa** beratarrak urte bat beteko du irailaren 28an. Zorionak zure familiaren partez.

**Fernando Etxegarai Lopez** lesakarrak 5 urte beteko ditu urriaren 5ean. Zorionak familia eta lagunen partez.

**Itziar Lasaga** beratarrak 21 urte bete ditu irailaren 14an. Zorionak lagunen partez.

**Mikel Eskudero Indakoetxea** goizuetarrak irailaren 1ean 9 urte bete ditu. Zorionak! Antokako familia.

**Nekane Irigoien Montes** mexikarrak urtea beteko du urriaren 5ean. Zorionak Oitzko familia eta bereziki Nekaneren partez.

**Jose Maia** Amaiurtarra bihotzez, gorputzez irundarrari zorionak familiaren partez, irailaren 15ean 60 urte bete dituelako.



**Jaione Iriarte** sunbildarrak 47 urte beteko ditu urriaren 7an. Aunitz urtez bere familiaren partez.

**Rosari Indakoetxea** sunbildarrak 45 urte beteko ditu urriaren 5ean. Zorionak bere familiaren partez.

**Raul Garcia Etxeberria** beratarrak 27 urte beteko ditu urriaren 12an. Muxu haundi bat familiaren partez. Zorionak!!

**Maria Andueza Lanz** beratarrak 17 urte beteko ditu irailaren 26an. Zorionak ama eta ahizparen partez.

**Iñigo eta Mikel,** sunbildarra eta goizuetarrak irailaren 26an 4 urte beteko dituzte. Zorionak Eneritz, Naiara eta gurasoen partez.

**Julen Arozena** goizuetarrak urriaren 5ean 3 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partez.

**Olaia Retegi Alzugarai** atarrabiarrak irailaren 22an bete du urte bat. Zorionak Elizondoko familiaren partez.

**Jonnathan Gortari**k 9 urte beteko ditu urriaren 2an. Zorionak Espainiako familiaren partez.

**Iosune Anzizar Elizondo** sunbildarrak 20 urte bete ditu irailaren 20an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partez.



**Ioritz Albertos Iturralde** elizondarrak 8 urte bete ditu irailaren 16an. Nahiz eta berandu, zorionak zure familikoen partez.

**Unai Sapuppo** doneztebarrak 4 urte beteko ditu urriaren 18an. Zorionak aita, ama eta Txominen partez.

**Gorka Arteta Mitxelena** elizondarrak 14 urte beteko ditu urriaren 6an. Zorionak familiaren partez.

**Andoni Maritorena Ganboa**k 3 urte beteko ditu urriaren 14an. Zorionak familiaren partez.

## OHARRA:

*Argazkia urtebetetze egunetik ahalik eta hurbilen ateratzeko, tenorez bidali behar diguzue guri. Ahal bada, urtebetetze eguna baino 20 egun lehenagotik.*

**A D O S**

*Julian Izura Nuin*

Telefonoak: 451841 • 908. 77 86 53 • e-mail: julizu@zaros.com

Parrokia 9, bajeran **DONEZTEBE**



**Elizondo.** • Braulio Iriarten pisu erreformatua salgai.



**Etxalar.** • Herritik 10 Km.tara, baserri eder bat bere terrenoarekin.



**Bera.** •Matxako ostatuaren gaineko bigarren pisua salgai, erabat berritua. 12.000.000

**Beran** edo **Lesakan** pisuak hartuko genituzke errentan, konfidantzazko lagunentzat, ongi ordaintzeko.



**Doneztebe.** • 80 m²ko bajera 200 m²ko baratzearekin salgai, erabat berritua. Frontoi ondoan.



**Narbarte.** • Pisua salgai, bere baratzearekin.



**Elgorriaga.** • Pisua, garaje eta ganbararekin salgai. 13.000.000 negoziagarria



**Elgorriaga.** • Etxe adosatua salgai. 13.500.000. Aukerakoa.



**Donamaria.** • Hiru solairuko etxea salgai. Baratzea eta garagea. Arras berritua.



**Sara.** • Etxe oso bat eta 1.500 m²ko lur eremua salgai.

**Bordak** erosi nahi dira edozein tokitan. Egoerak ez du inporta.



**Elgorriaga.** • Etxe honen 1. planta, bere bajerarekin salgai, arras polita.



**Mugairi.** • Pisu hagitz eguzkitsua salgai. 8.500.000.



**Goizueta.** • Borda salgai, ura eta argiarekin.



# ¡HEMENTXE GAUDE!

## LARUNBATA, URRIAK 4 LEHEN EGUNA

## NAHi TA NAHiEZ

LARUNBATA

**11** Gau Bela

LARUNBATA

**18** DISKOTEKA

LARUNBATA

**25** EGAN

# BORDATXO



LARUNBAT GAUEKO MARTXA

DONEZTEBE - NAFARROA